

# LEHOIAREN BEGIRADA

Xabier Amuriza

*«Lehoiaren begirada» honek, beste zenbait testuren artean, Berria egunkarian, «Pascalen esferatik» izeneko zutabean idatzi nituen kolaborazioak ditu oinarri. Testuak dezente birmoldatuak izan dira, batez ere «Lehoiaren kantua» izeneko poemak. Asko eskertzen dut Berriak eman didan askatasuna. Eta bihoa eskaintza ere berarentzat, eragozpen ez gutxi kostatuak trebeki gaindituz, mundua euskaraz ematen digulako egunero.*

## *LEHOIAREN KANTUA*

## *Lehoi bila*

«Unibertsoa da  
esfera infinitu bat  
zeinaren erdigunea  
toki guztietan baita  
eta zirkunferentzia  
inon ere ez».

Zure esana, Pascal  
ondo ulertu dut.  
Unibertsoa da: «naiz».

Arestik lehoiak nahi zituen.  
Orain tximeletak nahi dira.  
Garaiak aldatu dira, bai.  
Lehoiak behar dira berriz.

Arteaz ezin da fidatu.  
Gauzarik terrorifikoenak  
ondoan bizi direnek  
asmatzen dituzte.

Poetaren sakontasun  
«adierazkaitz» horiek  
inork ez ditu ikusi.  
Sinesten baduzu baietz  
zorionak!  
Engainu poetikoa gertatu da.

Poesia da engainu bestial bat  
lehoien loa bezalakoa.  
Tximeletak?  
Izarrak suizidatu dira.  
Non daude lehoiak?

## *Gure amaren poza*

Erabakia baitzuen  
berak nahita joatea  
elkartu gintuen denok  
afari alai batean.

Eta afal orduan  
kaliza gorria jatorik  
bere esku ahuletan  
amak esan zuen:  
«Pozik noa  
zuek pozik utzita».

Ez zuen esan:  
«Maita ezazue elkar  
nik zuek bezala».  
Bakarrik esan zuen:  
«Pozik noa  
zuek pozik utzita».

Ezin dugu zapuztu  
gure aitaren etxea  
eta hainbat gutxiago  
gure amaren poza.

## *Gauzei egoten utzi*

Zergatik ez diegu  
gauzei egoten uzten  
behartu gabe  
esplika daitezten?

Zentzua behar al du  
inork ikusiko ez duen loreak?

Adimenaren aurreko  
eternitate hartan  
nork zekien bazela  
edo ez zela Jainkorik?

Leiho bat ikustean  
orri bat itxita  
ez daukat bakerik  
beste orria ikusi arte  
itxita edo puskatuta.

## *Objektuen zoriona*

Zoragarria behar du  
objektu bat izatea  
masa baten erdian.  
Iparragirre, Gernikan  
Picasso kalean.

Dohatsua zu, Iparragirre  
baztertua erdi-erdian!

Gauetz ere hor zaude  
mamuen lagun, jabe.  
Horrela egon zaitezke  
bat ere sufritu gabe  
edozein plazatan  
edozein mundutan  
honetan nahiz bestean.

Dohatsua zu,  
baztertua  
erdi-erdian!

## *Urte berri, esfera berri*

«Unibertsoa da  
esfera infinitu bat  
zeinaren erdigunea  
toki guztietan baita  
eta zirkunferentzia  
inon ere ez».

Zutaz beste nork  
esan dezake hori?  
Neuk, Pascal.  
Banoa horizontera  
eta erdigunean nabil.  
Erortzen naiz zulora  
eta erdigunea naiz.  
Naiz, beraz, pentsatzen dut.  
Milesker aurkitu duzulako  
nire tokia unibertsoan.

Zu, Pascal maite  
zirkunferentzian zaude  
dagoeneko.  
Ni tangentearen bila noa  
biok topo egin dezagun  
edozein erdigunetan.  
Adibidez  
sagardotegi batean.

Egutegi berririk?  
Eskerrik asko!  
Iazkoa daukat  
estreinatzeko.



## *Hidrogenoa*

Hasieran hidrogenoa zen  
hasiera hidrogenoa baitzen.  
Dena zen hidrogenoa  
eta hidrogenoak egin zuen dena.  
Berarengan zegoen bizia  
eta biziak ekarri zuen gizakia.

Gizakiak hidrogenoari  
izen bat erantsi zion  
eta espiritua deitu.  
Baina inork ez daki zer den  
ez zer nahi duen  
nahiz hartatik eginak  
garen edo gauden.

Hasieran hidrogenoa zen  
hasiera hidrogenoa baitzen.

## *Haizeak dakiena*

Haizeak badaki  
zergatik den maitasuna  
hain beharrezko.  
Haizeak ez dakiena da  
zergatik duen maitasunak  
hain gutxi erabakitzen  
munduaren bilakaeran.

Haizeak badaki  
zergatik den laudatuago  
ongia gaizkia baino.  
Haizeak ez dakiena da  
zergatik den gaizkia  
ahaltsuago gaitzerako  
ongia onerako baino.

Bob Dylanek erantzuna  
haizean eseki zuen.  
Nire gaineko haizeak  
txistu egiten bakarrik daki.

## *Eternitatearen erdia*

Eternitatea erdibitu nuen.  
Erdetik kendu nintzenean  
bi erdiak berriz batu ziren.

«Zu ere piztuko zara»  
diozu onbera, Pascal.  
Ulertzen ditut zure  
bihotzaren arrazoiak  
baina ez dakit nahi dudan.

Eternitatea hain baita suabea!  
Dinosauroen aro guztia igaro nuen  
bat ere sufritu gabe.

## *Oroimena zerbait bada*

Oroimena zerbait bada  
iragana oraina da.

Argazki hura ikustean  
doinu hura entzutean  
sentitzen dudana zurrara  
orain gertatzen da.

Oroimena zerbait bada  
iragana oraina da.

Nintzen hura, naizen hau  
bat bera direla sentitzea  
orain gertatzen da.  
Eta urteak joanago  
hura orain da niago  
gertatu zenean baino.

Oroimena zerbait bada  
iragana oraina da.

## *Bi etorkizun*

Iraun ala iraungi.  
Biak batera ezin sentitu.  
Txandaka hausten naute  
eta dudak ahitzen nau.

Emaitzarik ez baitut ikusiko  
biziko naiz konfiantzan  
iraungo duela betiko.

Nire jarrerak ez du, noski  
bermatzen etorkizunik  
baina ni pozik bizitzeak  
zerbait edertzen du guztia.

Iraungiko dela?  
Pena handiago ematen dit  
neu hil beharrak  
baina ez naiz horregatik  
tristeago bizi.

## *Zenbat zero*

Ez «lapur», ez «magnate».  
Ez «jauntxo», ez «hiltzaile».  
Esan, soilik, zenbat zero.

Zero horien azpian  
zenbat mila ume  
gosez hilak  
zenbat mila andre  
bortxatuak.  
Zenbat mila gizaseme  
miserable  
zero horien azpian.

Ez «lapur», ez «magnate».  
Ez «jauntxo», ez «hiltzaile».

Esan, soilik, izen-abizenak.  
«Zu eta zu eta zu!»  
Hor dituzu guztiak  
ahaltsuen rankinean  
finantzen olinpoan.

Ez ibil zulo beltzen bila.  
Zulo beltzak aurpegiak dira.

## *Bakardade gozoa*

Bakardade gozoa.  
Gogorra, baina gozoa.

Inguruak molestatzen nau  
gaixorik banago.  
Gehiago molestatzen nau  
gaixorik badaude.

Galdetzen didazu beti:  
«Zelan zure bizitza?».  
Zergatik ez duzu galdetzen:  
«Zelan zure giltzurruna?».

Ba, harriz beterik!  
Baina ez dizut esango  
orduan beti horixe  
galdetuko baituzu.

«Zer gozoa den  
bakardadea!».  
Zaila omen bizitzan  
baina utz bederen  
sar nadin heriotzan  
bere itxitasun gozoan.

## *Hutsunea*

Zergatik ote da  
hain irresistiblea  
hutsunearen kontzeptua?  
Jartzen zaizkio mugak  
ertzak, kurbadurak  
gorputz bat bailitzan.  
Betiraun bat eman genuen  
pentsamendura iristen  
aurkikuntza handietako bat  
hutsunea izan zedin.

Norbere izatetik  
ez baitago libratzerik  
kexatzeko era bat izango da  
pentsatzeko ahalagatik.  
Berdin da.  
Pentsatzen dut  
beraz naiz.



## *Dezepzio naturala*

Egon behar dute planetek  
non bizitza antolatuko baita  
era oso ezberdinetan.  
Ez nuke eskatuko ezeinetan  
hilezkortasuna bezalako  
dohain fabulosorik.

Ez nuke hautatuko  
ezein mundu eder  
non bizitza bizigarri izateko  
beharko bailirateke  
ontasun ontologiko bat  
adimen zailegi bat  
zorte neurrigabe bat.  
Horretarako  
gauden tokian gaude ondo  
jakinik ez dela  
betiko izango.

## *Armak*

Zentzuez bat izan behar du  
etikoak ote diren estatuak  
Frantzia edo Errusia  
Maroko edo Prusia.  
Zentzuez bat behar duenez  
moralak ote diren armadak  
Txina edo Estatu Batuak  
Espainia edo Turkia.

Armak! Armak! Armak!  
Armak dira bakarrak  
etorkizun segurua dutenak.

Garaipenaren dohaina da  
porrota saihestu izana.  
Porrotaren akatsa da  
ezina ez aurreikusia.

Armak! Armak! Armak!  
Armak dira bakarrak  
etorkizun segurua dutenak.

Anibal nagusitu balitz  
Kartago izango zen Erroma  
eta berdin beteko zen  
faktoreen ordena.

Armak! Armak! Armak!  
Armak dira bakarrak  
etorkizun segurua dutenak.

## *Denboraren arazoa*

Etiket irteten naizenean  
ilargia beti irteten ari bada  
nor dabil ezorduan?

Denboraren arazoa ez da  
azkar doala  
nekez doala  
irrepetiblea dela.  
Denboraren arazoa da  
bukatu egiten dela.

Katuak baleki  
zazpi bizi dituela  
zortzigarrenaren ezinak  
larrituko luke.

Denbora erlatiboa da  
baina ez hainbeste.  
Denboraren arazoa da  
bukatu egiten dela.

## *Nire burezurra*

Ukondoak tinko mahaian  
zortzi hatz gurutzaturik bekokian.  
Erpuruek lokiak hertsatzen  
materia grisa ateratzen bezala.  
Masail-hezurretara jaisten dira.  
Frontal ertzak zanpatzen dituzte  
bekainei min eginez.  
Sartzen dira bi erpuruak  
zokon nasaletan  
suntsitu nahian bezala  
buruko min parasito bat.  
Haztatzen dituzte bi masailak  
eta sailkatzen aro geologikoak  
euren hortzeria irregularretan.

Bat-batean, argi eta zehatz  
burezur bat dakusat  
biluz eta huts.  
Hatzak atzeratuz  
hor dira temporaleko zuloak  
okzipitalaren konkorra  
eta kasko lisua, zuri-horia.

Hortxe dago nire burezurra  
Bilboko Antropologia Museoan.  
Hain da nire antzekoa ze  
argi dago neurea dela.  
Nire burezurra  
une bat lehenago zebilena  
esku artean indarka  
pentsamenduan barnatua.  
Berbera.  
Orain zer dagokit?  
Izutzea? Zoriontzea?

## *Pentsatu, sentitu*

Ezin dut pentsatu sentitu gabe.  
Ezin dut sentitu pentsatu gabe.  
«Pentsatzen dut, beraz naiz».  
«Sentitzen dut, beraz naiz».

Badira gizaki batzuk  
zeinengan haustura batek  
berez edo istripuz  
paradoxa ia dohatsuz  
sentimendu positibo guztiak  
biltzen baititu.

Ez da zure meritua.  
Gizaki batzuek  
ez dizute uzten aukerarik  
maita ditzazun baizik.

## *Dezepzioz dezepzio*

Dezepzioz dezepzio  
pozik bizi izan naiz.  
Dezepzio bakoitzak  
itxaropen bat izan du.

Itxaropen zapuztu bati  
itxaropen zapuzgarri bat darraio.  
Zirkuitua etengo balitz  
suizidatuko nintzateke.

Ez dago arriskurik.  
Itxaropen zapuzgarriak  
infinituak dira.

Dezepzioz dezepzio  
pozik bizi izan naiz.  
Dezepzio bakoitzak  
itxaropen bat izan du.

## *Ergela naiz*

Erditzeko nahiz hiltzeko  
balio duen kolorez  
ilargia geldi dago.  
Nonbaitik bidalia  
ez daki nora joan.  
Laino xume bat etorri behar  
gelditasuna mugi zedin.

Pentsatzen ari naiz  
nola adierazi zirrarak  
ilargiak eragiten dizkidanak.

Azkenean  
begiratzetik atzeman dudan  
datu nagusia da  
ilargia joan dela.

Bihar ere badatorke.  
Hasiko naiz irabiatzen  
pentsamenduak, sentimenduak  
eta bitartean ilargia  
joana izango da.  
Argi dago.  
Ez naiz amesti bat.  
Ergela naiz.

## *Duintasunez hil*

Duintasunez hiltzea  
errazago iruditzen zait  
duintasunez bizitzea baino.  
Nornahi da gauza  
ekintza heroiko baterako.  
Ez hainbeste  
bizitza noble baterako.

Hilezkor naiz  
egunero-egunero.  
Behin gezurra izateak  
ez du deuseztatuko  
aurreko egunen egia.

Hainbestetan huts egin dut  
hiltzeko beldurrean ze  
beldur naiz azkenean  
ez ote naizen hilko  
distrakzio batean.



## *Ez, ez!*

Ez, ez!  
Inork ez du nahi besteen gaitzik.  
Baina zenbat gustatzen zaigun  
besteen gaitzei ekitea!

Jendea oso kreatiboa da  
besteen gaitzekin.  
«Hau, hori, bestea ...».  
Harrigarriena da  
azkenean  
denak hiltzen direla  
gaitz berdintsuekin.

## *Izar horiek*

Izarrak batera daude  
gure begietan bakarrik.

Hodei beltz hori bezala  
zeina, bat-batean  
gozo-gozo erditu zaizun  
ilargi hori-hori  
txit umel batez.

Horizontez inguraturik nago  
eta neu ezin egon  
horizontean.

## *Askatasunaren maila bat*

Askatasunaren maila bat da  
itxaropenetik libratzea.  
Ezer ez itxarotea  
erabaki nuenetik  
libreago sentitzen naiz.

Nire izatekoa  
hantxe dago beti, nire zain  
zuhaitz bat bezain leial.  
Ez landatu zuhaitzik  
nire oroimenez.  
Zuhaitz guztietan nago.

## *Beherakada abismala*

Beherakada abismalean nago.  
Zer aldatu da?  
Neure sentimena.  
Horregatik izan bada  
etorriko da gorakada.

Oso hitz mekanikoa  
izan badaiteke ere  
estatistika da nire  
psikologia mendrearen  
gidarik fidagarriena.

Horregatik izan bada  
etorriko da gorakada.

## *Hozka hil*

Hortz bat utzi nuen  
epitafio inperialean  
gatzeluen hegatsean  
gotorlekuen kanoi-zuloan.

Hortz bat josi nuen  
erreginen errezelean  
bisitariak alaitu harresian  
garaipen-arku loguratuan  
gloria militarren erramuan.

Hortz gabe munduraturik  
hozka joan nahi dut mundutik.

Hozkada bakoitza  
fotografiatu zuten  
atrakzio bat zelakoan  
gelditu nintzen arte  
hortz bakarrarekin.  
Hil nadila berau  
erori baino lehen  
hil nahi baitut  
hozka egiten.

## *Laboaren profila*

Hilerrian marmarioa  
eta hiri bat isil-isilik.

Eguzkiaren irteera  
itxaroten duzunean  
izarrak ezabatzea  
desiratzen duzu.

Eskerrak badiren ilargiak  
Laboaren profila bezalakoak  
kapelu eta guzti.

## *Natura kontenplatzen*

Natura kontenplatzea  
gozamen amaigabea.  
Imitatzen hasten bazara  
porrot egingo duzu.  
Gainditzen saiatzen bazara  
hondamenera zoaz.

Miraria ez da  
zuhaitz berde bat  
zuhaizti kiskalian.  
Miraria da  
perikito guztiak  
zuhaitz berean.

Norbaitek kontatu zituen  
kontenplatzea bailitzan  
xehetasunen bilduma.  
Ni hobeto nabil lainoan.  
Prezizioak akitzen nau.

## *Nik poza nahi dut*

Zoriona da  
ideia komertzial bat.  
Nik poza nahi dut.

Arazoa ez da  
ezjakintasuna.  
Arazoa ezina da.  
Gehiegi dakit  
ahal dudan gutxirako.

Zergatik da iraunkorrago  
samina poza baino?  
Urmael bat irabiatzean  
uhin alaiak laster hiltzen.  
Ura bera, ordea  
nekez garbitzen.  
Uhinak dira poza  
ur uhertua, samina.

Nik poza nahi dut  
eta hori ez dakar  
historia zaharrak  
ez egutegi berriak.  
Bai ekar dezake  
gezur laztan batek  
ez dakit nork esanak.

Zoriona da  
ideia komertzial bat.  
Nik poza nahi dut.



## *Ez naiz nekatu bizitzen*

Ez naiz nekatu bizitzen  
honela bizitzen baizik.

Ez naiz nekatu maitatzen  
maitasunaz esanak  
entzuten baizik.

Ez naiz nekatu euskaldun izaten  
baizik saiatzen  
asmorik ez dutenekin.

Ez naiz nekatu denborari jarraitzen  
baizik ezin saihesten  
bere zatirik gehiena  
oharkabea joatea.

Ezin baita berdin izan  
denborak alde deidan  
ala neuk alde deiodan.

Eskertzen diot naturari  
aukera bat eman didalako  
bizi ahal izan nadin  
akats horiek guztiak gabe.

## *Ilargi zoragarri*

Ilargi zoragarri  
poeta guztien argi!  
Baina ilargiak  
ez du epeltzen.

Ilargi-gau ederrak  
agian ederrenak.  
Baina ni edertasunak  
triste jartzen nau.

Ilargi-laurden kezkarri!  
Ez tente, ez etzan.  
Ilargi bi-heren  
sutu, irten berri  
odol eske datorrena.

Oinetan dut lurra.  
Azal bizi, etengabe berri.  
Ni hemen bizi naiz!

Ilargitik inork ez du  
patatarik ekarri.

## *Beste mundutik*

«Beste mundutik ez du  
inork idatzi».  
Ez daude gaizki.  
Nork daki hori?

Nik jaso banu  
horrelako gutun bat  
gordeko nuen  
isilean.  
Litekeena al da  
denek jaso izana?

Jasoa dugu, bada,  
zorioneko gutuna  
baina isildu dugu  
eta esaten darraigu:  
«Beste mundutik ez du  
inork idatzi».

Ausartu gara noizbait  
guztiak guztiei erakusten  
delako gutun ezkutua.  
Aldatu al da zerbaitetan  
auziaren gakoa?

Bere izatea frogatzen  
uzten ez duena  
izaki ahula da.

## *Ni, zu, gu*

Ni, zu, gu.  
Nizugu, zuguni, gunizu.  
Zugunizu.  
Orain arte, ondo.

«Neu» esan dut eta  
erdiak joan zaizkit.  
«Nerau» esan dut eta  
beste erdiek ere ospa.  
«Neroni» esan dut eta  
batzuk itzuli zaizkit.  
«Nihaur» esan dut eta  
itzuliak ere kanpora.

Esperientzia aberatsa izan da.  
Euskara errazean idazteko  
erdaraz egingo dut.  
Tamala da nik, erdaraz,  
gaizki idazten dudala.

## *Berriz jaioko bagina*

Zer egingo genuke  
berriz jaioko bagina?

Besteena ez dakit  
baina susmatzen dut neurea.  
Oroitzen dut zer egin dudan  
eta horixe egingo nuke.

Eta berriz ere  
heriotzaren hurbilak  
irakatsiko lidake bizitzen.

Merezi al du gauza bera  
bi aldiz probatzea?

## *Ezin dut esan*

Ezin dut esan  
(ozenki)  
minbizia bekaitz dudanik.  
H. H. ez zuen inork  
ez maite, ez gorroto  
bereziki.  
Anonimo unibertsal bat  
iragarri zuen arte  
minbizia zeukala.  
Berbertan  
haren hitz arruntak  
deigarri bihurtu ziren.  
Buruak biratzen zitzaizkion  
nor bait handia sartzean bezala.  
Argi zegoen gaitza zela  
inportanteago  
bera baino.  
«Zeuen egunak ere  
kontaturik daude»  
esaten zuen.  
– Bai, noski!  
arrazoi ematen genion.  
Baina badirudi guztien egunak  
ondo kontaturik egotea  
ez dela aski motibo  
elkar aintzat hartzeko.

## *Ez naiz lotsatzen*

Ez naiz lotsatzen  
«poza» sentitzeaz  
euro bat aurkitzean.  
Poz bat da.

Zer du fideo-zopa honek?  
Neure haurtzaro guztia!  
Horrek eta euro batek  
bizi-maila bat osatzen dute.

Bidaia bat tokatu zait  
Californiako San Frantziskora.  
Joango naiz esker onez  
baina nik nahi dudana zinez  
Bilboko San Frantzisko da.

## *Soldadu zintzoa*

Betirauneko atean deklaratu nuen:

- Soldadu zintzo bat izan naiz handienen zerbitzari: faraoi, enperadore, errege, zar xeke, sultan, pontifize, kan...
  - Zerrenda badakigu! –moztu ninduten–.
- Ez dituzu eginbeharrak ondo bete.

Berrinkarnatu nintzen  
beste soldadu batengan  
eta pentsatu nuen:  
– Gutarrak eta besteak  
sailean erail ondoren  
buruzagia joko dut.

Betirauneko atean egotzi zidaten:  
– Zerbitzu-orri kaskarra dakarzu.  
– Kaskarra? Denak akabatu baditut!  
– Eta historialariak? –eraso zidaten.

Itzuli nintzen mundura  
eta esan zidaten  
ez zegoela gehiago  
berrinkarnatzerik.  
Sentitzen dut.



## *Ospa dezagun!*

Sarraskitu dituzte  
zabor-poltsak bezala.  
Eta niri oroitzen ez besterik  
«ospa dezagun!» baizik.  
Nik ez ditut hil, ama!  
Gu ez gaituzte hil.  
Ez al da ospagarri?

Bai ezbehar beltza  
urlia gaizoarena!  
Ospa dezagun, laztana  
guri egokitu ez izana.  
Zer on egiten dio  
gure tristurak hari?  
Zertan zaio txargarri  
gu saiatzea ematen  
poz bat biziraunari?

## *Gizon kiskalia*

Gizona lanean ari zela  
basoa suak hartu zuen.  
Sua joan zenean  
gizon kiskaliak  
lanean jarraitu zuen.  
Sua bueltan etorri zen  
iraindurik bezala  
eta beste aldetik joan zen  
azkarrago eta alai  
ikusirik lehen pasara  
ondo egin zuela.

Gizonak esan zuen:  
«Orain eser gaitezen».

Andrea etorri zen  
bazkariarekin  
eta esan zuen:  
– Zer gertatu da hemen?  
– Ez dakit, andre!  
Badirudi suak  
iparra galdu duela.

Neskatxoa iritsi zen  
eta galdetu zuen:  
– Amatxi!  
Zer gertatzen zaio  
aitatxiri?  
– Ez dakit, laztantxo!  
Aitatxi, batzuetan  
tragiko jartzen da.

## *Ez dut gehiago sufrituko*

Ez dut gehiago sufrituko  
herri baten izateagatik.  
Nahi badu, izango da  
eta nahi ez badu  
zergatik behar du izan?

Ez dut gehiago sufrituko  
nahi eta ezin dutenengatik.  
Bakarrik sufrituko dut  
behar eta ezin dutenengatik.

Saiatuko naiz hor ere  
gehiegi ez sufritzen  
nire sufrimenduak ezertan  
eragin ezin dienengatik.

## *Heriotzaz*

Heriotzak, Pascal maite  
arterako bakarrik balio du.  
Ezin dut hartaz hitz egin  
ez baitakit zer den hiltzea.

Badakit zer den  
ongi bizitzea  
gaizki bizitzea  
larri bizitzea.  
Hortxe amaitzen da  
nire ezagutza.

Galde niri heriotzaz  
hiltzen naizenean.  
Bitartean  
mintza niri bizitzaz.

Heriori betiraun osoa  
emango diot  
inolako kexa gabe.  
Bizitzatik, neuk nahita,  
azken arnasarik ere ez.

## *Nire itxaropena*

Itxaroten dut ilargia  
etxe aurretik pasako dela  
nire oroimen osoarekin.  
Halaxe izaten da.

Itxaroten dut eguzkia  
bere amagana joango dela  
niretzat utzirik  
gau aberatsa.  
Halaxe izaten da.

Nire itxaropenak  
ez du huts egiten.

Itxaroten dut  
noan bakoitzean  
itsaso berri bat  
aurkituko dudala.  
Halaxe izaten da.

Itxaroten dut  
norbaiz aurkituko dudala  
karinoz galdetuko didana:  
«Zelan bizi zara?».  
Halaxe izaten da.

Dena biltzen da ezen  
ez dudala itxaroten  
itxaron behar ez denik.

## *Hilak non daude?*

Hilak egon ohi dira  
bizek nahi duten lekuan.  
Denok hildakoan  
nork erabakiko du  
non gauden?

Esango duzue  
iraungo dudala  
zuen oroimenean.  
Baina hori  
zuen oroimena da  
ez nirea.

Dohatsua zu, Herio  
lortzen duzuna gizaki  
guztiei ematea  
itxura humano bat.  
Dohatsua zu, batez ere  
ezabatuko dituzuna  
ikusit nahi ez ditudan  
guztiak.

Esango duzue  
iraungo dudala  
zuen oroimenean.  
Baina hori  
zuen oroimena da  
ez nirea.

## *Neure buruaren bila*

Ez dut maite inora joaterik  
neure buruaren bila  
beldur bainaiz, ni iristerako  
joana izango dela handik.  
Hobe, gainera, hala izatea  
berritu ez dadin dezepzioa.

Noizbait hobetsi nuen  
mugaz hemendik gelditzea.  
Asko borrokatu ondoren  
lortu dut pobre izatea.  
Dohakabe izatea falta zait.

Gosea kenduko duzu  
agian, noizbait  
baina hobeto dabiltzanak  
ez dituzu kenduko bistatik.

## *Bizitza ametsa bada*

Bizitza ametsa bada  
ez itxaron itzartzerik.  
Sinesten baduzu ez dena  
galduko duzu badena.

Bizitza antzerkia bada  
ez itxaron beste emanaldirik.  
Egunak ez du errepikarik.

Itzalak ezin du izan  
bere objektua baino egiago  
baina batzuetan handik  
hobeto ikusten da hau.

Zorigaitza da bakarra  
gainditzen duena marra.  
Berdin zaio izatea  
badena zein ez dena.

Bizitza ametsa bada  
ez itxaron itzartzerik.  
Sinesten baduzu ez dena  
galduko duzu badena.



## *Egunean poesia bat*

Carpe diem. Dies illa.  
Atxiki eguna. Egun hura!  
Gau amaigabe bat  
non batu baitziren  
ezina eta ez-nahia.  
Ezin lokartu pozez  
eta ez nahi lokartu  
poza eten ez zedin.  
Gau eternoa  
poz infinitua.  
Ume bat hantxe  
ni, edozein  
egun zoragarri bat  
noiz argituko zain.

Carpe diem. Dies haec.  
Atxiki eguna. Egun hauxe!  
Ez itxaron  
gaixotasun batek  
irakatsi arte.

## *Eguneko 2. poesia*

Egun zoragarri hura!  
Egun zoragarri hori!  
Orduan zer da nire  
egun «atxikia»?

Egun atxikia da  
kate-maila indartsu bat  
bi potentzia senidek tiratua  
kontrako posizioetatik.  
Joana versus datorrena.  
Tentsioa gehitu ahala  
herdoila askatuz doa  
goritasun hutsa gelditu arte.

Goritasun hori da  
unearen kontzientzia  
kontrako bi potentzia  
senideren emaitza.

Eta emaitza geure esku dago.  
Zorigaitza da bakarra  
nagusitzen dena  
gure ahalaren gainetik.

## *LEHOIAREN PENTSAMENDUA*

## *Adinean aurrera*

Adinean aurrera noala, ez ditut gauzak astiro egiten moteldu naizelako, baizik ikusi dudalako azkartzeak nora ekarri nauen. Mugimenduak ez dauka izan beharrik norabait iristeko. Izan daiteke mugitzen jarraitzeko. Geldi egon ezina patologia bat izan daiteke. Puntu batean nago non pentsatzeak pentsatzeko bakarrik balio baitit. Geldi ezinari mugi ezina gehitzen bazaio, emaitzak oreka bat izan behar duela ematen du, baina ez da segurua. Ikusi beharko, hortik baitoa etorkizuna. Prekarietatea? Urtez hornituak gara. Azken gaixotasun arraroa gaixotasunei ekiteko gaixotasuna zela uste nuenean, arrarago bat agertu zen: osasuna tratatzea gaixotasun arraro bat bezala. Ezin diote erremediorik aurkitu. Iritsia naizen adinean, mundu hau ez zait askorik interesatzen. Jada kanposferan bizi naiz. Handik gure planetak ridikulua ematen du. Ez dut uste itzuliko naizenik.

Unibertsoa bakartasun ondo banatu bat da. Gizadia ere berdintsu. Nola egon daitezke hainbeste bakardade, hain gune populatueta? Izarrak batera daude gure begietan bakarrik. Elkarren artean, bakarrik daude. Grabitatea? A, bai! Nork ikusi du bera? Hodeitzar beltz hori, ordea, bat-batean, gozo-gozo erditu zaizu ilargi hori-hori, txit inpregnatu batez. Horizontez inguraturik nago, eta neu ezin naiz horizontean egon.

Nazkatzen hasia naiz errealitatea eta fikzioa elkarlotzeko diskurtsoekin. Ez zaizkit interesatzen ez bata, ez bestea. Alegia, errealitatean nabilenean, fikzioa ez zait interesatzen. Fikzioan nabilenean, errealitatea ez zait interesatzen. Zer gehiago esan nezake? Fikziotik libra naiteke. Errealitatetik, ez hainbeste.

Sor nintekeen armiarma ere. Halako mota bat, zeinak, ume pila bat egin eta gero, hauek bera jan dezaten uzten baitu, ihes egin ahal izanda. Nahiz alferrekoak izan, gauza zailak egiteak zentzu bat damaiola dirudi existentziari. Emanik, beti ere, existentziak zentzu bat behar duela. Hala bada, ez da lan-karga txikia, bizitza ez hain luze baterako. Bai, bai. Kafka higuin dezakezu, Samsari koloniarik egin ez ziolako. Jarraitzen? Ba, ez saiatu. Bukatu da.

## *Jaun txit goren*

Jaun txit goren! Bakarrik jakin nahi nuke bi heriotz zigorretatik zein aplikatuko zaidan lehenen. Biak batera? Banaka joateko astirik ez al dago? «Tribunalaren erabakia da». Baina horrela ez al da arriskatzen bietako baten integritatea? «Ondo dago! Nobleki hitz egin duzunez gero, bigarrenetik hasiko gara, ea nola gelditzen den kontua». Eskerrik asko, Jaun txit Goren! Uste dut horrela kontua nahiko pasagarri geldituko dela.

Sinpleago izan zen fits batena. Erratzean ari zarela, beti izaten da fitsen bat, bilgailura igotzera ukatzen dena. Kostata lortu nuenean, hegan joan zen. Tximeleta baitzen! Norberak ere gai izan behar du fitsa eta tximeleta bereizteko. «Begira zenbat zikin utzi duzun atzean!» Eta diozu: «Bai! Zikin horiek hor daude, baina nik bildu ditudanak ez daude hor». Garbitasunean une bat iristen da non zikinak ez baitzaitu molestatzen, tupust eragin arte. Orduan nahikoa da ostikada bat. Une hori, batzuentzat, jaiotzan hasten da.

Besteen gaitzez gozatzen denak garantia guztiak dauzka zoriontsu izateko. Nonbaitik etxeratzean, bi aldarte mota izaten ditut. Batzuetan, hil nahi dut. Beste batzuetan, hil nazaten nahi dut. Ez da hitz-joko bat. Bizi-zentzu bat izan daiteke hiletak saihestea, bizia maite duzulako. Saiatzen naiz, baina jende gehiegi hiltzen da. Eta beste hainbeste, hil ezinik. Bizitza beraren beste zentzu bat izan daiteke hiletak pozik itxarotea, norabait joateagatik. «Ederto! Egongo gara hurrengo hil-kanpian». Beharbada, heriotza baino okerrago da ez izatea gai, ez hiltzeko, ez bizitzeko. Eta bitarterik ezin aurkitu. Ez dut ulertzen pentsamendu errebelde bat zergatik biguntzen edo aldatzen den adinarekin, nahi edo beldur izan zitekeen guztia (ia guztia) joana denean. Itzala zugandik apartatzen hasia bada, ez dakit zer gomendatu.

## *Darwin maite*

Eternitatea eztanda eta konbustioa zen. Iritsi zen bizia, eta biziraun-borroka amaigabea hasi zen. Zuk, Darwin, bizi-borrokaren eroalea «hautespen naturala» deitu zenuen. Ez al zitekeen izan bizi bat, zeinagatik «borrokatzea» ez zen nahitaezko izango? «Hautespen naturalak» ez al zuen esan nahi izango «hautespen biolentoa»? Susmatzen dut zure kalifikatzaile bigunduaren arrazoia. Ezin zenion esanarazi Jainkoari (oraindik): «Haz eta ugal zaitezte, elkar hilez eta janez. Aurrera ahaltsuenak!».

Esan nahi dut, Darwin, zeuk ere antzeman zenuenez, natura arrazoiaren oso aurrekoa dela. Natura ez zen adimenetik sortu, adimena naturatik baizik. Eta hori, denboraren azken frakzioan. Frakzio horretantxe ere, adimena jaiotza baten ondoren garatzen da. Inor ez da jaiotzen inguru jakin batetik at. Horretan ikaragarria egin zenuen. Kultura batean jaiotzen zinen, eta alderantzizko norabidean jarri gintuzun. Baina hor ere indarrak indar izaten darrai. Eta «lege natural» izaten darrai arteko printzipioak: indar bat beste indar batek bakarrik mendera dezake. Fisikan nahiz ... Gizateriaren aroan, beste indar hori izan daiteke (izan behar luke) indar «arrazional» bat, baina beti ere, indar.

«Arrazional» kontzeptua nola ulertu? Borrokak ez dauka propietate magikorik. Indar guztiek dakite borrokan. Mundu guztiak neurtzen ditu ahal konparatiboak. Gaizki neurtzea galtzailearen akatsa da. Errua ere bai. Irabaztea galtzea baino probableago izateko moduan bakarrik izan daiteke indar bat «arrazionala». Edo gutxienez, aurreratzea atzeratzea baino probableago izateko moduan. Kontrakoa lege natural biolentoaren jarraipena baizik ez da. Argi dagoena da, indarren printzipioa «arrazionalki» beteko bada, ez dela nahikoa «arrazoiaren indarra», agian zeuk ere maiz frogatu ahal izango zenuenez. Arrazoiari indar batek eusten ez badio, alferreko arrazoia da.

## *Bihotzaren arrazoiak*

«Bihotzak baditu arrazoiak, adimenak ezagutzen ez dituenak», idatzi zenuen, Pascal. Saiatu zinen, ba, arrazoiak ematen adimenari! Sinesten dut benetan aritu zinela, sinesten baitzenuen pentsatzen zenuena, eta pentsatzen baitzenuen sinesten zenuena. Existentziari zentzu bat bilatzea (bilatu nahia) existitzeko era bat baita. Aurkitzea era horren amaia izan daiteke. Nik ezin dut pentsatu sinesteko adina. Pentsatzen dut, pentsatzeko gai naizelako.

Pentsatzen dut, badakidalako pentsatu gabe ez dela bizitza, nahiz eta jakin, pentsatuz, nahiko zaila izango dela. Beharbada, ez dut jakin bizitzen, baina jakin dut bizi nintzela. Balantzaren beste aldean, «ondo bizi» da, soilik, ondo bizi. «Ezin hobeto bizi» da ondo bizi zarela ohartu. Kontzientzia baten jabe izatea ez baita nahikoa. Kontzientiaren jakile izan behar duzu, jabetza horrek gogo-atsegin bereizi bat eman deizun. Zertarako duzu, Pascal, edertasun bat inkarnatzea, soinean zer daramazun jakile ez bazara, gutxienez galiforme baten neurrian?

Nietzschek idatziko zuen: «Pascal, ia maite dudana, gauza infinituak irakatsi dizkidalako. Kristau logiko bakarra». Nik «ia» gabe maite zaitut, zeren, itxura apal batean, oso jakile baitzara zeure kontzientziaz, eta agian zeure kontzientiaren edertasun bereiziaz, nahiz eta ni izan, Nietzscheregandik arrazoi nahiko ezberdinengatik, zure pentsaeraren kontrapuntu bat.

Pentsatzen dut, pentsatzen duenak beti asmatzen duelako zerbait, errorez bada ere. Eta susmoa daukat ondo pentsatzen ikasi nuela, pentsatzea alferrik zela ikusi nuenean. Planeta honen dominatzaileak ez dira molestatzen pentsamenduari jarraitzen, ez iritzi artikulua idazten. Hala ere, jarraituko dut pentsatzen, batzuetan egia ez baita hain erlatiboa. Denek sinesten duten gezurra egia da.

## *Nola esplikatzen da*

Ez daukat gogorik ulertzen saiatzeko nire ulertzearen gorabeheran ez dauden auziak. Are gutxiago, nire ulermenean sartzen ez direnak. Ilunean sakonduz, ilun gehiago bakarrik aurkitu dut. Galdera bat mendeetan errepikatu izanak ez du esan nahi garrantzitsua dela, funsgabea dela baizik. «Aizu, nola esplikatzen da ...?». Utzizu! Hemen inork ez du behar merkuriozko oinetakorik. Zorte handia iruditzen zait baretasun egiazko bat lortzea, funtsez nahiz funts gabe, mundu honetara mugatzen denean. Harago saiatzen direnei ezin diet jarraitu. Ondo joan!

Eternitateaz ez naiz arduratzen, bai baitakit bertara itzuliko naizela, bertatik sortu nintzenez gero. Bitartean, ez dut maite neure buruaren bila inora joaterik, beldur bainaiz, ni hara iristerako, bera joana izango dela handik. Zorionez joana, bestalde, zeren han aurkituz gero, dezepzioa errepika bailiteke. Ez litzateke tragedia bat. Dezepzioz dezepzio, pozik bizi naiz. Dezepzio bakoitzak itxaropen bat izan du. Xumekiago esanda, nire amets gehienak sasira joan dira, baina ametsak izan dira.

Bere burua aurkitu nahi duenak ubikazio bat esan nahiko du (altuagoa, seguruenik), eta hori ez da finitu ala infinitu izatearen kontua. Norbaitek esango dizu ez zela ari toki baten bila, bere pertsonaren bila baizik. Orduan norbait inportanteago esan nahiko zuen, zail baita inor hastea nortasun kaskarrago baten bila.

Orain arte, bere ahalguztiak ere ezin izan du Jainkoa bakartasunetik salbatu. Zer gehiago opa zeinkeo zeure buruari ahalguzti bat baino, konformitate iraunkor batera iristeko? Zeren betiraun osorako garantia bat nahi izango baituzu. Ez ahaztu, ordea, beti izango dela beste norbait zure hurko edo, gutxienez, lekuko, ez baita pentsatzekoa zeu izatea bakarra, betirauna gozatu edo pairatu ahalko duena. Zortea opa dizut, harriduraz bada ere, abentura horretan. Arrarotasun tenporalak gerta daitezke, baina arrarotasun eternoak ...



## *Itxaropenetik harago*

Itxaropenetik harago zer dago? Nahiago dut galdezka ez hasi, ez dakiten guztia erantzuten hasiko zaizkit eta. Gauza gehiegi ikasi genuen. Zorionez, oroimenaren dohain on bat ahanzmena da. Itxaropen huts egin bati beste itxaropen huts egingarri batek darraio. Horrela, itxaropena beti da. Askori alternantzia desesperagarria irudituko zaio, baina ni ez naiz suizidatuko, probabilitate handia ikusten baitut itxaropen aldian hiltzeko. Itxaron ezin duenak ken beza eguzkia. Errazago egingo zaio bere itzala garbitzea baino.

Bizi-muga laburra eman ziotela jakinarazi zidan.

- Laburra... laburra...–geratu nintzen airean, nola tanta bat amaraunean.
- Oso laburra –zehaztu zuen–. Saiatzen banaiz, zerbait luzeagoa.
- Ba, eutsi egin beharko zaio orduan! – agindu nion, neure eskumena bailitzan.
- Dudarik gabe! –baieztatu zuen–. Orain badakit zertarako bizi naizen.

«Garaiz ohartarazi naute», pentsatu nuen oherakoan. Egunak ez dira, ordea, berdinak. Deprimenteena da deiturik noan tokian inor ez egotea, baina joaten naiz. Egunen batean egongo da, eta bertan hilko dut. Seguruenik, ez da izango behar zuena, baina halaxe jasoa izango da epitafioetan. Heriotza baten ondoeza beste heriotza baten gogoak orekatzen duela irakatsi zidan historiaren «magisterioak», eta herri hartako alkateari destino horixe opatu nion, hitzorduen kalea zuloz beterik zegoelako. Desio hura nire partaidetza gabe betetzearren, prest nengoen neure asmo fatal guztiak ezabatzeko.

Bai, Pascal. «Muturrek elkar jotzen dute», esan zenuen, eta zorotasunari aurrea hartu behar zaio. Dalik adierazi zuen: «Zoro baten eta nire artean, aldea da ni ez naizela zoroa». Hark ere bazituen argiune batzuk. Ohera aterkiarekin noala ikusten baduzu, ez duzu nahitaez pentsatu behar burua joaten ari zaidala. «Zer daroazu?» galdetu eta «buru bat» erantzun badut, pentsa ezazu, soilik, nire helburua ez zela ohea. Beharbada, Pascal, muturrek elkar jaten dute.

## *Optimistak eta pesimistak*

Ezinak gustuak aldatzen ditu. Ahalak, gehiago. Ezinak on dezake gizakia, eta ahalak, nekez. Amodioa? Semenean merkurioa ikusi zuenetik, ez zen gehiago ausartu. Optimisten eta pesimisten arteko aldea ez dut beti argi atzeman, batez ere bi aldarreak norberagan neurtu nahi direnean. Ezaugarri bat izan daiteke optimistak aldakuntza guztietan alde onen bat suposatzen duela, eta pesimistak ez duela aldakuntzarik nahi. Optimismoak dezepzio handiak eragin ditzake. Optimismo errealista bakarra izan daiteke gaixotasun txarrak eta larriak asko izatea, baina hilgarriarik bat ere ez. Oraindik ez naiz hil! Bestela, oso zaila da –agian innoblea– optimismoa gomendatzea ez dela gertatuko badakizun zerbaitez.

Baldin artera mugaturik bizi ez bazara. Orduan argi dago. Euforia izan daiteke errenazentista genial baten unea. Tristura izan daiteke erromantiko genial baten unea. Euforia gehi tristura izan daiteke genio unibertsal baten unea. Euforiarekin, bazterra jotzean, triskantza handiagoa egingo duzu. Tristurarekin, normalki, bazterrean zaude. Batetik bestera ez baitago iristerik erditik igaro gabe, nahiago dut unibertso genial bat izan.

Bizitza garantiaz gozatzeko, pixka bat pesimista izan behar da. Lehen premien maila plazergarritik gora, nekez izan daiteke zorion osorik. Mundua neuk asmatua balitz ere, asegaitz nengoke, gizakia baita animalia bakarra, ase puntuan gelditzen ez dakiena. Sena indar koherentea da. Adimena oso dohain arraroa da. Jendeak arrazoitzen dakien moduan pentsatuko balu, mundua maitagarria litzateke.

Inkoherentzia guztien barruan, bakoitzak bereari jarraitzeko era arrazonatuak asko izatea defentsa handia da munduak estu hartzen dituenentzat. Asmatzen ez dago erraz, baina infinituak gara errorean. Garbi esanda, besteen gaitz handiek ez naute gehiago abailtzen neure gaitz txikiek larritzen nautena baino. Limitazio horren azpitik, solidario izan naiteke immolazioraino.

## *Haurtzaroko lurrak*

Haurtzaroko lur mugatuak ezin ditut oinkatu, haietan falta direnengatiko tristuran erortzen naizelako. Beste lurralde mugagabeei ezin diet zentzurik hartu, haietan nire haurtzaroa falta delako. Tristeia izan behar du inor behar ez izateko bezain independentea izateak. Oroimeneko bizilagunak ez dira zahartzen. Han, umetako umeez ume darraite, eta gaztetako gazteek, gazte. Ilargi erdiak zergatik pozten nau beti, eta ilargi osoak tristatzen, ia beti?

Nire gauzak neuri bakarrik interesatzen zaizkidala dirudi. Oso ondo konpontzen naiz neure pentsamenduekin, kontrakoena barne. Gero pertsonekin topo egitean, bat ere ez zait ongi egokitzen. Bai, Pascal! Izateko arrazoi guztiak dauzkagu. Dudan dagoena da izan nahi dugun. Horretan, zu eta ni esfera ezberdinetan gaude. Zu frantses konbiktoa zara, eta ni, homologo biziraule bat.

«Jakin-mina ez da banitatea baizik –esan zenuen–. Gehienetan, zerbait jakin nahi dugu, hartaz hitz egiteko bakarrik». Eta hain gogotsu hitz egiten dugu dakigunaz, ezen dena besteentzat ikasi genuela baitirudi. Norbaitek oso jakintsuaren inpresioa utzi dizunean, agian ez zara ohartu dakien guztia esan dizula. Jakiteak ez du tokirik okupatzen, baina jakite batzuen koexistentzia zaila da. Jakintsu handiek oso gutxi dakite jakin beharrekoak diren gauzetan.

Bizitza zer den bizitzaren azkenean jakiten dela diotsunak argi dago bizitza alferrik galdu duela. Azkena beti dela galtzea esango dizute. Nik esango dizut ez duzula ezer galdu, zegoena baliatu baizik. Garbi dezakezu zeure burua, baina ez zeure itzala. Begiak ateratzen badizkidazu, zeureetatik begiratuko dizut. Jarrantzen, Pascal? Ongi bizi naiz, hilda ere egon baininteki. Bat gaizki dabilenean, gutxi animatzen du beste bat zer ondo dabilen entzuteak. Nik, badaezpada, neu baino gaizkiago dabiltzanak bisitatzen ditut.

## *Bizierak, izaerak*

Bizierak alda daitezke; ez hainbeste, izaerak. Bizitza beti izango da biziraupen bat. Biziraupen materiala ez bada, biziraupen sentimentala. Albotik begiratuta, bizitza da zerbaitekin betetzeko eman zaizun denbora bat. Zerbait hori bizibidea denean, denborak badu zentzu bat. Baina bizibide seguruan ere, denborak berdin darrai bete beharreko izaten, nahiz betelanak zentzugabeak iruditu. Hori ez da kezkarri, izaki zentzugabea izaten aise ikasten baita. Baina kontuz! Denbora hutsa zama larria izan daiteke, bere alderik zapalgarriena izanik ezin duzula gainetik kendu. Adimena, finean, era ezberdin bat baizik ez da denbora bat betetzeko, zeina betetzen ez baduzu, berak irentsiko baitzaitu. Denbora hutsa zulo beldurgarria da.

Gizakia ezaguera osora iritsi aurreko betirauna albora utzirik, gure bizitza bi arotan bana daiteke. Lehenengoa da denbora amaigabea bailitzan bizi duguna. Bigarrena da denbora amaitzen ari delako kezkarri bizi duguna. Bi arook, bakoitza bere baitan, zentzuzkoak izan daitezke, baina biek batera ez dute adimen maila jasoegia ematen. Zure denbora da alanbre horizontal bat airean, muturretan euskarri gabea. Ez zinen inondik iritsi, eta amaitzean, ez zara inora eroriko. Ez al da hori zentzu on bat?

Beste guztiak akabatzea baino errazago iruditu zitzaidan suizidatzea, eta horixe egin nuen. Nork esan lezake hori? Ba, adibidez, jatordu bat garesti iruditu zaiolako protestatzen ari den batek. Utzizu. Zer edan duen ahaztu zaionari ez galdetu zenbat edan duen. Adibide txatxu hori bertan utzirik, lege natural nahiko argia dirudi norbere burua hiltzeko kemen handiagoa behar dela, inor hiltzeko baino. Izatez, inor hil dutenak askoz gehiago dira norbere burua hil dutenak baino. Hala ere, izutzen nau pentsatzeak norbere buruaren hiltzaileak gehiago izan daitezkeela norbere buruaren maitaleak baino.

## *Kanabera pentsalaria*

Bat ez da inoiz zahartzen guztiz, baina geldi bazaude, pentsa dezakete ez zarela mugitzeko gai, eta mugitzen bazara, pentsa dezakete galdua zabiltzala. Hori besteen zurekiko errore bat da, baina zeu ere erra zaitezke zutaz. Zure itzala mugitzeak ez du esan nahi zeu mugitzen zarenik. «Pentsatzen duen kanabera». Pascal. Iritsiko zaizu eguna, zeure itzala mugitzea aski izango zaizuna. Ez daukazu hori nola den jakiten saiatu beharrik. Oso erraza da. Berez-berez jakingo duzu.

Pixa egitean, amorratzen zen ezin zelako makurtu (gizon txukuna) ontzitik kanpora eskapatzen ziren tantak garbitzera. «Txotxa» moztea erabaki zuen. Baina bera ez zen ausartzen mozketak burutzen. Gauzak nola egin esplikatzea errazago baita norberak egitea baino. Andreari laguntza eskatu zion, eta honek lagundu egin behar. Bai, Pascal. Zahartzari aurrea hartzea oso erraza da, baina sarritan errazenean huts egiten dugu. Errazen horretan huts eginda, aurrera bazoaz, ondo zahartzeko baldintza bat da zahar itxurari beldurrik ez izatea. Esango dizute: «Oraindik gerra handia eman behar dugu!». Zuk baietz esan. Gerra handia ez bada, traba galanta, seguru.

Itxaropen gabe bizi daiteke. Ilusio gabe, ez. Probabilitateen kalkulua (zure gaietako bat, Pascal) oso kontra eduki arren, zorigaitz handiagoa etorri ahal zaizula pentsatzea bizipoz bat izan daiteke. Beharbada, ez da izango pentsatzeko modurik zuzenena, baina pentsatze horrek maiz salbatu nau. Ez esan inon gaizki zaudenik, ze entzun beharko dituzu ondo egoteko era guztiak. Esaten deskuidatu bazara, ez hasi era guztiak praktikatzen, ze gaia aipatzen duzun hurrengoan, beste era ezberdin batzuk azalduko dizkizute. Jendea oso kreatiboa da inoren gaitzekin. Egizu hau, egizu hori ... Hainbeste dira egin daitezkeen gauzak ezen lege naturala joko gabe gelditzen baita. Izugarria da gizartearen lagundu nahia, ezer egiterik ez dagoenean.

## *Mugaz hemendik*

Mugaz hemendik gelditzea hobetsi nuen. Asko borrokatu ondoren, azkenean lortu nuen pobre izatea. Dohakabe izatea falta zait. Hori ere gerta baledi besteek sinesteko moduan ezen ez dela izan zerbait lotsagarriaren ondorioz, orduan lortua duket «bizitzan garaitzea». Ba, bai. Azkenean, lortu dut aberastea ere. Ez dut gehiago behar. Ez da garaipen luzea izango, laster hilko bainaiz. Bitartean, nahiago dut libretaren berri ez jakin. Gutxi ote dudan susmoak ez nau hainbeste larritzen nola gutxi dudala jakiteak. Pentsatzeak batzuetan balio izan dit. Badakit, adibidez, premia baten asetzeak gozamen handiagoa dakarrela zaletasun batenak baino. Bizio batenak, ez dakit. Gosea berdindu ahalko duzu (agian), baina hobeto bizi direnak ez dituzu bistatik kenduko. Eskelak irakurtzea oso sana da. Beti aurkitzen duzu poza emango dizun norbait. Terrore filmek ez naute hainbeste betetzen, ze niri gustatzen zait buru moztuek aktuatzan segi dezaten.

Karitateak balio ez badu, eta justizia posible ez bada, zer gelditzen da? «Zuloa!» –zioten. Hm! Zuloan erortzea errazago da balkoitik saltatzea baino. Orbelen lurreratzea oin-hots bat iruditu bazaizu, gau larria datorkizu. Poetek, batzuetan, larritasun horretara eraman nahi gaituzte. Zeu ere ibili zinen, Pascal, amildegien ertzak haztatzen, ez baitzenuen hutsetik esan: «Filosofiari barre egitea filosofatzea da». Fedeak salbatu zintuen zientziatik, eta zientziak egin zintuen fedean sinesgarri.

Ni, ez zientzia, ez fede, nola bizi naitekeen? Ba, itzel, Pascal. Bizitzeko ez da misterio handirik behar. Hiltzeko beldurra? Beste batzuk ez al dira, ba, hil? Jakintasun doi bat eta ezjakintasun prudente bat nahikoa dira heriotzara garaiz iristeko. Berandu iritsi naitekeela? Itzuli beharrik ez baita izango, inork ez dit haserre egingo: «Kontu gero! Hurrengoan ez zaizu barkatuko». Zuk segi pentsamenduari barre egiten, ze nik badakizu benetako barrea maite dudala. Orduan, baliteke lehenago iristera behartu nazaten, baina hori ere ez da hain larria izango, baldin osasunaren erreserba guztiak agortzeke iristen banaiz. Burua joan zaio, baina analisiak ondo daude.

## *Emozio inteligentea*

Inteligentzia emozionala baino nahiago dut emozio inteligentea. Tristura da sentimendu bat, arrazoi gabe gara daitekeena. Alaitasuna ere bai. Biak izan daitezke berdin arrazoi gabeak, baina bigarrena, behintzat, ongarri zaizu. Mundua da norbera eta gainerakoa. Norbera ondo dagoenean, gainerakoa ondo ikusten da. Baita natura ere. Jarrera positiboek edo negatiboek ez daukate zerikusirik egiarekin, aldartearekin baizik. Batzuetan egiarekin ere bai. Mundua ederra da, molestutzen zintuztenak badoazela ikusten duzunean.

«Etorkizuna baikor dakusat». Bista onaren seinale. «Etorkizuna ezkor dakusat». Azkar hiltzeko arrazoi bat. Etorkizuna? Aurreikuspen posible guztiak egin dituenak abantaila osoa dauka bat asmatzeko, eta ia dena huts egiteko. Zahartzaroa gogorra da. Mmrr! Aurreikuspen ezkorra. Norbaitek esango dizu: «Ez hainbeste. Gero eta gogorragoa bakarrik». Eta hori ez al da gogorra? Baiezpen bat: «Zahartzaroa ederra da, gazte izanaz oroitzen zareino». Beste baiezpen bat: «Zahartzaroa ederra da, gazte izanaz ahazten bazara». Zein da egia? Zein da hobe? Ez dakit. Bizitza asko luzatu da, baina zatirik gogorrena luzatzen ari garela uste dut. Nahiz eta, luze-luzean, badituen abantaila batzuk. Handiena da ikusi nahi ez zenituen asko ez daudela zure bistan.

Optimistak esango dizu porrotetik asko ikasten dela. Nik ez dut uste porrotak merezi duenik, zerbait ikasteagatik. Gehiago ikasten da porrot egitear egon izanetik. Kasualitatea al da askoz optimista gehiago aurkitzea gauzak ondo doazkienen artean? Hain ondo ez doazkienen artean ere badira halakoak, baina, seguruenik, ahalegin bat bezala, hobeto joan dakizkien.

Mundua konpontzeko era bat da norbera mundutik apartatzea. Behintzat, arazo bat kentzen diozu. Nik ez ditut denak maite, beldur bainaiz denek maita nazaten. Eta gorrotatzea ez zait interesatzen. Ongizate erresistente baten fase gorena munduagatik ezaxola litzateke. Kotxe bat pasatzen ikusi duzu eta diozu: «Hoa popatik hartzera!». Gero jakin duzu istripu larri bat izan duela. «Sentitzen dut, baina nire munduagatik ezaxola ez da aldatzen».

## *Sentimendua*

Sentimendua sentsazioen multzo bat da, eta sentsazioak tximista bezain biziak izan daitezke. Baina baita tximistaren formak bezain ezberdinak ere. Haran zabal baten sakonetik ezinezko da sentitzea planeta esferikoan gaudela. Solas komunikatibo horiek zirkuluan bezala, non ohartzen baitzara denak zain daudela hizketan ari denak noiz amaituko, bakoitza berea kontatzen hasteko. Ez, ez! Inork ez du nahi inoren txarrik, baina zenbat gustatzen zaigun besteen arazoei ekitea! Talentuak lana behar du, baina lanak ez du talentua bermatzen. Zenbat eta lan gehiago egin, hainbestean txartu daiteke obra.

Nik diodanak ez du bat ere garrantzirik. Bakarrik eragin dezaket nirekin ados daudenengan. Beharrak elkartzen du, ahalak bakartzen. Zerbaiti buruz denek soluzio bat dutenean edo «dakitenean», ez dago soluziorik. Mundua da zeuk konpon dezakezun apur horixe. Alegia, zeuk bakarrik konpon dezakezuna. Jakintsua da norberak behar duen adina dakiena. Gainerakoa ez al zenioen, Pascal, «banitatea» zela?

Treanean eserita, atzez dakusazun buru hori neskarik edo mutilik politena da, zeren, bere ile-ziluetaz handik, iruditzekeo gai zaren aurpegirik politena baitago. Biratu denean, iruditzen zenuena gainditu badu, trenaz maiteminduko zara. Eta leiho bat eskura baduzu, kanpoaz maiteminduko zara. Kanporantz lo. Ihesa ezina izan daiteke, baina ez pentsaezina. Zertarako nahi duzu amets egin, ametsik gehienak amesgaitzak izango badira, edo onenean, ergelkeriak? Ez da batere gozoa baranoz inguraturik itzartzea.

Desesperazioaren indarra handia da, baina desesperatzeko ere kemena behar da. Iruditzen al duzu izaki eternoki torturatzaille bat? Ba, izaki hori izan da. Gizakiari tortura estremo eta eterno bat ezartzeko prest egon zen.



## *Intelligentziarentzat*

Intelligentziarentzat hain toki txikia dago munduan ezen zoko bat aurkitzea, beretzat osorik, jenialtasun bat bailitzateke. Pentsamenduaren historiari gehiena entretenigarri alferreko bat izan da. Alferrekoak ez du entretenigarria baliogabetzen. Beraz, ez da izan guztiz alferreko. Esan daiteke pentsamenduaren historiari gehiena entretenigarri on bat izan dela.

Mundua nitaz mintzo dena da. Bestea fikzioa da. Baikor izateko baino inteligenteago naiz, eta ezkor izateko baino burudunago. Radikala ere izan naiteke, eta banaizela uste dut, baina ez dakit nola izan efikaza, eta horrek amorratzen nau. Malko isilak? Negarra izan daiteke isila edo ozena. Malkoak isilak dira. Amorratzen nau kalifikazio zehazgabeak, ohartzen naizenean. Ohartzen ez naizenean, poesia iruditzen zait. Bai, bai! Malkoak begietan. Nik malkoak belarrietan nahi ditut.

Jainkoa animalia infinitu bat da. Alegia, Jainkoaren ideia ahultasuna da handiegia dela. Nire begiak ortzian atsedentzen dira. Ortzian zerua begiztatu nahi dudanean, lainoa sartzen da beti. Ez dakit zer hautatuko nukeen nekezago: gaua ez argitzea ala eguna ez iluntzea. Ez dut bururik hautsi nahi. Erlea ez da hurbiltzen lorera honen politagatik, usainagatik baizik.

Askatasunaren maila bat itxaropena baztertzea litzateke. Ezer ez itxarotea erabaki nuenetik, askoz osoago sentitzen naiz. Morrontza handiegia dakar, esperientzia setatiak diotsunean itxaroten duzuna ez duzula betetzen ikusiko. Errakuntza zeurea da. Itxaropena utz dezakezu amaitzeke, baina bizia amaitzear duzu, aurten jaio bazara ere. Egizu bederen proba nola bizi zintezkeen itxaropenetik askaturik.

Giltzurri baten zain dagoenaren larrimina istripuen gutxitzea da. Ez du hainbeste axola denbora konturatu gabe joateak. Konturatuta ere berdina doa. Zorionez, aurrea luzea da, atzera begiratu ezik. Nire kasuan, denbora laburra geratzen zait ondo bizitzeko. Luzea, gaizki bizitzeko. Batera nahiz bestera, izatekoa hantxe aurkitzen dut beti, zain, zuhaitz bat baino fidelago. Nire oroimenez, ez landatu zuhaitzik. Zuhaitz guztietan nago.

## *Poesiaz burlatzea*

Poesiaz burlatzea poesia da. Zuk filosofiaz esan zenuen hori, Pascal. «Filosofiaz burlatzea filosofia da». Baina niri beti iruditu zait filosofia genero poetiko bat dela. Zuk nahiago izango duzu alderantziz –poesia filosofiaren genero bat–, baina niri, lehen-premiak ez diren gauzetan, berdin dit faktoreen ordenak. Uste dut esan nahi zenuela: «Filosofia da ideia ulertezinak garatzea hitz ulergarriekin». Hau da: «Poesia da ideia ulertezinak garatzea hitz ulergarriekin». Hitzak ulertezinak badira, edertasun bat gera liteke. Filosofian ere badira ideia ulergarriak, baina gehienak prolegomenoak izaten dira.

Orain ez dela idazten Arestiren moduan? Ez, ba! Arestik lehoiak nahi zituen. Orain tximeletak nahi dira. Garaiak aldatu dira, bai. Badirudi lehoiak beharko direla berriz. Arrakastarik ez izatekoan, zergatik idazten duzu? Ba, seguruenik, artea delako hartantxe saiatzeaz beste erremediorik ez edukitzea. Horixe izango da, zeren, artean, sufritzen dena gehiago baita gozaten dena baino, salbu diferentzia arrakastaz berdintzen duten bakanengan, eta nasaiki gaintitzen duten bakan-bakanengan. Idazten dut horixe delako eremu bakarra non zerbait menperatu ahal dudan. Eta beharbada, artista naizelako. Baina arteaz ezin da fidatu, ze gauzarik terrorifikoenak ondoen bizi direnek asmatzen dituzte. Bai, Pascal. Poliziak ere badu bihotza, baina ez da komeni erabil dezan. Nik ez dut inor izorratu nahi. Idazten dut, banaizela ohartzeko, eta batzuetan, banaizela ahanzteko.

Poesia engainu bat da. Poetak ikusten dituela dioen zer sakon, inefable, «adieraztezin» horiek inork ez ditu ikusten. Irakurleak sinetsi badu norbaitek ikusi dituela, engainu poetikoa gertatu da. Eta batzuetan, poesia engainu eder bat da. Pasarte literario batek esanahi ezberdin asko edukitzearen arrazoi bat izan daiteke esanahi argi bat falta izatea. Adjektibo egoki bat ezin aurkituz zabiltzanean, jar ezazu «magikoa», eta denek usteko dute zerbait esan duzula.

## *Komuneko irakurlea*

Komunean irakurtzeari utzi nionetik, nire kultur maila asko jaitsi da. Irakur zale onak irakurri behar ditu liburu on-onak edo txar-txarrak. Bitartekoek denbora gehiegi jaten dute, nahiz komunean izan. Hasi irakurtzen, nahi baduzu, baina azkar erabaki jarraitu ala utzi. Azkartasunak pare bat orrialde esan nahi du, horrela desaktibatuz liburu laburren estrategia, nola baita irakurle inozentea azkeneraino arrastatzea.

Mundua aldatzeko asmo gabe idazten baduzu, beharbada lortuko duzu zerbait aldatzea. Bada antzezlanean joera oso baloratu bat estilo hurbila, espontaneo, humanoa garatzeko. Niretzat, aktore edo aktuatzaile on baten balioa da, hain zuzen, humanoa ez dela sentiarazteko gaitasuna.

Musika hura bezalakoa, non hartan barneratzeko gogo saiatuz entzun ondoren, azken txalo konbatienteak obraren pasarte bat zirela pentsatu baitzenuen. Eta non, bat ere ironia gabe, txalo-sorta obraren zatirik musikalena iruditu zitzaizun. Neu ere entzule, dudan nengoen Debussy, Franck, Usandizaga, Copland, Britten, Bernaola ala Boulez ote zen interpretatzen ari zirena, baina, azkenean, Ravel izan zen. Izena entzun nuenean, Ziburuko bihozkada guztiak bizitu zitzaizkidan, eta merezi izan zuela sentitu nuen. Baita ondorio zehazgabe bat gelditu ere, geroago argituko zena: norbere zerbaitek egon behar du obran, merezi izan zuela sentitzeko.

## *Zorigaitzak*

Zorigaitzak bizitza bat honda dezake, baina badira bera behar dutenak, bizia sentitzeko. Ni ez naiz hain dependentea, baina beti nago dudan zorigaitz baten handia ote datzan bere larrian ala denboraren luzean. Uraren konparazioan, ez dakit zein den izugarriago: uholde baten oldarra ala tantaketa jarraitu bat garunean.

Ezagutu dudan beste munduaren antzekoena da: hilerrian marmarioa eta hiria isilik. Ez dauka aipatu tantekin zerikusirik, baina eguzkiaren irteera zirrarez itxaroten duzunean, izarrak ezabatzea desiatzen zaude. Eskerrak badiren ilargiak, Laboaren profila bezalakoak, kapelu eta guzti. Horrelako zerbait pentsatuko zuen, trumoi-hotsera jaikirik, zerua garbi ikusi eta berriz oheratzean, tripak kurrinka entzun zituenak.

Ez zait gustatzen pikondoan harrapa nazaten, bai baitakit pikuak jatean naizela tximinoen antzekoen. Hauek ala fraideak ote zaharrago? Ba, begira pinguinoen «komunitatea». Beharbada, tximinoa zaharrago izango da, gorilaren kasuan, behintzat. Oso eboluzio luzea izan behar zuen honek, bera hain handia eta belarriak hain chipak edukitzeko. Ez dakit gorilarena berariazko erresistentzia den, baina belarriek hil arte darraite hazten. Antzinakoena, seguruenik, karibua izango da, adartzat armairu artistiko baten eskeletoa ezarri ziotena. Eboluzioa, batzuetan, traba izugarria da.

## *Zu zara zu*

Aterkiekin beti gertatzen da zerbait. Utzia zenuen tokian falta, eta halakoak. Edo erotzear zabilta, aldean daramatzazun betaurrekoen bila. Berokia ezin jantziz nindoan kalean, oinezko bat nire buru gainetik keinu irrikorrean gurutzatu zen arte, pentsatuz duda gabe: «Kosta behar zaizu berokia janztea, aterkia zabalik duzula». Jabearen aurpegian bere burua dakusan txakurra bezala gelditu nintzen.

Gauetz kotxea, argi gabe, oharkabeago zela pentsatzen nuen, eta hain kautoa nintzen ezen bakarrik ematen nion intermitenteari, inor ez zetorrela ikustean. Norberak itzali eta argia joan dela pentsatzea ere izaten da. «Aizu, zergatik ireki duzu aterkia, euririk ez bada?». Bere burua ezkutatu nahi zuela erantzun zuen. «Nik esango nuke –zuzendu nion– zure ezkutatu beharrekoak zapatak direla». Ez zuen bururik atera aterkipetik. «Ondo dago!» –pentsatu nuen. Baina badaezpada galdetu nion ea ilunetan zer ikusten zuen, eta erantzun zuen: «Bistan dagoena». Pentsatu nuen lotsaz: «Neurea da akatsa». Ondorio horretara iristen ikasi nuen, mozolo batek garbi-garbi oihu egin zidanean: «Zu! Zu zara zuuu!». Horixe bera esaten ari da lehen hominidoa baino milioiak urte lehenagotik. Oraindik ez diot «ni» entzun, hori kontzientzian beharrezkoa bailitzan. Gauza txikiak amorr handia eman dezake. Goiz izoztu batean euli bat aurretik gurutzatzeak senetik ateratzen nau.

## *Fikzioez*

Fikziorik fikzioena ere, egileak benetan bizia ez bada, iruzur bat da. Arteak iruzurra baino gehiago izan behar du. Ez dago fikzio-zientziarik, erlijioak bezalakorik. Eurok dira fikzio-literaturaren lehen aroa. Eta seguruenik, muturrekoena. Edertasunak triste jartzen nau. Mozartem requiemak, adibidez. «Artea sentimendua bada –pentsatzen nuen–, nik baino gehiago sentitzen duenik ez daiteke izan». Artea espresioa izan, ordea! Eta baliteke espresatzen geniala izatea, norberak fitsik sentitu gabe. Mugimendu eta estilo piktoriko guztiak itsas hondoko bizian daude, marra eta kolore posible guztiakin. Arrainek horrexegatik dirudite izaki absortoak. Gizakiok urpetarrak bagina, ez genuke pinturarik beharko. Itsasoa gaindi dezakeen bakarra bere hondoa da, zeinaren erreplikarik hurbilena pagadi bat zeharkatzea izan bailiteke, adibidez, Gorritik Uitzira.

Exuberantzia inguratzailerik horrek, ordea, ikusmena mugatzen du. Zeugandiko zirkulu hurbil-hurbila bakarrik hautematen duzu. Neguko oskarbietan ikuspegia erabat zabaltzen zaizu, mugagaberaino. Urkiolako pagadi biluziak naturaren barne arkitektura osoa agertzen dizu, marren zehaztasun gardenez. Museo inponente baten nukleo zara, nondik zehar-ikusten baitituzu, zuhaitzietz harago, haitz zuriska gotorrak (Anboto, Alluitz, Untzilatz, Mugarra, Leungana ...), «hemendik ezin da pasatu» esanez. Baina pasatzen zara, eta bitarte sakon bitatik, urrunera, Oiz eta Sollube ageri dira. Hauen ostean, lainozko aizto horizontal batek ebakitako mendi bat dakusazu, zeinaren tontorrak lainoaren gainean jarria dirudien. Ez zaude ziur aizto hori itsas horizontea den, baina bai usaintzen duzu kresala.

Eta gorantz (Urkiolan zaude), urdintasun eternoa, zeinari haitzek egin ahal dioten mendeku bakarra baita horizonte agresibo bat markatzea, nahiz eta ez dirudien urdintasunari inolako minik iristen zaionik. Sentimena disparatu zaizu, emoziozko dardara-uhinak gorputz osoan hedatuz. Eta kolpera, trokarantz ematen duen hegalean, zurezko mahai jada ilunduetako baten gainean, bikote bat hauteman duzu, aurrez aurre eserita, lau hankak elkar gurutzaturik, bizkarrak kurbaturik, aurpegiak hur-hur. Desegin da zure asmakuntza! Zerbait inportanteagoa agertu da.

## 300 orrialde

Traktore bat pasatzen ikusi dut, egurrez zamatua. Egur ondo egina eta helburu guztiak ondo beteko dituena. Bitartean, nik orrialde bat idatzi dut. Ez dakit ondo dagoen, ez dakit ezertarako balioko duen. Batzuetan, badakit ez duela balio, eta ezabatzen dut. Zergatik ez ote naiz dedikatu jardun batera, non egiten dudana badakidan ondo dagoela eta balio duela? Animatzen nau pentsatzeak badirela irakurle «aktiboak», nahiago dituztenak obrak, kalitatea eurek osatzeko modukoak. Deformazioa oso imaginatiboa baita. Baina ez daukat adorerik nobela bat idazteko. Nola bete behar ditut 300 orrialde? Baina bai daukat adorea nobela bat idazteko. Nola bete behar ditut 300 orrialde? Arazoak berdin darrai. Eta nire arazo intimoa da nire obra baten gorespen txiki batek gehiago pozten nauela nire pertsonaren gorespen handi guztiek baino. Neure obratxo bat maiteago al dut neure burua baino?

Pentsamenduaren historia artearen historia bezalakoa da, non originaltasuna edo aurrearekiko diferentzia bilatzen baita. Nahi nuke artea errealitatearen parte izan ledin. Isla bakarrik izatekotan, nahiago dut errealitatea bera. Pentsamenduak zehatz eta arrazoizko izatera jotzen duenean, zuhaitzik hurbilenari begiratzen diot. Zientzian ari gara. Ebidentzien lorratzean. Zientziaren asmoa ebidentziak aurkitzea bada, esan daiteke «pentsamendua» deritzonaren historia dela ebidentziak ezberdinki lausotzeko lehia bat. Deformatzeko ere bai. Arte mota bat.

Badira, noski, saiakerak, pentsamendua ebidentziarantz gidatu dutenak, baina aura gehiago besteek izan dute, lausotzaileek. «Artistek». Ebidentziak, maiz, min ematen baitu, gehiegizko argiak bezala. Zu, Pascal, joera bietan izan zinen arrakastatsu, nahiz eta nik –agian orain, askok– gehiago estimatzen dugun ebidentziaren senetik eman zenuena.

## *Hitzak zertarako*

Ez dago eskulturarik, egunero topo egiten dudan edozein zuhaitzen edertasunera hurbiltzen denik. Bekaitz dut ausardia inozente hori, dioena ezen norbaitek, zerbait egiteko (poesia ulertzeko, adibidez), «beste era bat», «aire berri bat» dakarrela. Izandako era eta aire guztiak ezagun balitu bezala. Edertasuna da zerbait ikustea azken aldia balitz bezala. Poesia dabil ezinezkoaren exaltaziotik inexistentearen gutziara. Hori ona al da? Nik ez dakit esplikatzen nola idazten den ondo. Nik ondo idazten bakarrik dakit. Omisioa testua bezain garrantzitsua da.

Vivaldi, Mozart, Beethoven, Usandizaga, Lizt, Verdi, Berlioz, Aita Donostia, Stravinsky, Guridi, Grieg, Arriaga... Entzuten eta identifikatzen ditut. Urlia da. Baina ez naiz diferentzia azaltzeko gauza. Bo, banaiz, baina irakurlea ez da gauza musikaria identifikatzeko nire azalpen on, zehatz, konpetentetik. Pertsonak ere, ezagutzen ditudanak, antz-antzekoak izan arren, denak ezagutzen ditut, argi eta bereiz. Baina ez dakit diferentziak azaltzen. Edo badakit, baina irakurleak, nire azalpenetik, ezin ditu pertsona horiek irudikatu. Irudikatuko du bere irudimenak dakarkiona. Salbu zenbait jauregitako zaintzaileak, zeintzuen aurrean duda sortzen baita manufakturak ez ote diren. Orduan zertarako balio dute hitzek? Susmoa daukat hitzek hitz egiteko bakarrik balio dutela. Bukatzen dena ez da zeresana, hitz egiteko gogoia baizik.



## *Oroimen osoa*

Oroimen osoa nahi dut, baina atzera begiratu gabe. Batzuk ez dakit nolakoak diren pertsona moduan, beti lanean ikusten baititut. «Egoista bezala, ruina bat izan naiz» –esan zidan nire barruko norbaitek, eta nik pentsatu: «Ba, emaitza moral nobedosoia lortu duk». Eta bai. Ni beti bizi naiz egun berezian. Gehiago ez da errepikatuko. «Aspertuta nago!» -entzun ohi da maiz. «A, ba, oso ondo! Asperdura ideia handien ama da». Eta bai. Konturatu naiz asperdura oso kreatiboa dela, bertatik irteteko gauza bazara. Irten ezin bazara, ez zaitu hilko.

Niri ez zaizkit gustatzen ipuinezko erortzeak eta laprastada simulatuak. Benetakoek bakarrik grazia egiten didate. Horregatik sartzen nintzen maiz hilerrian. Han inor ez dabil txantxetan. Epitafio batek zioen: «Mundua beldurrez igaro nuen». Gehienek zioten: «Hemen datza ... Hemen bizi da ...». Barka! «Hemen datza ...». Eta pentsatu nuen: «Hori ez dik berak ipini». Ez nituen inskripzio osoak irakurtzen. Total, hilda badaude, zer axola du nor den nor? Hasita nago mundua ikusten martziano batek bezala. Oso planeta urrun bat. Nire bizitza amets bete gabe bat izan da, baina ametsa existitu da. Gudu guztiak galdu ditut, baina bitarteko itzaropenak existitu dira.

«Zoriontsu izan nahi dut!» –hots egin zidan arestian aipatu barne-ruinak, eta erantzun nion: «Ez hadi horren konformista izan!». Mundu zuzen bat ezin itzaroteko zorigaitzera iristen bazara, beti geldituko zaizu hartaz burlatzeko atsegin handia.

## *Ez dut pretenditzen*

Ez nintzen ausartu adierazten ez nintzela aipuen zale, harik eta entzun nion arte Ralph Waldo Emersoni: «Gorrotu ditut aipuak. Esadazu dakizuna». Nik dakidana da esku batek ez dituela egiten esku biren lan erdiak. Eta ez dagoela tokirik, ondo abandonatuta sentitzekorik. Norbaitek zerbait larria kontatu badizu, ez aipa beste larritasun batzuk. Ez dizu kasu bat kontatu. Maitasun boluntarioa iraunkor izan daiteke, baina iraunkorrago da zirkunstantziek agintzen dutena.

Ez dakit zenbat naizen izaki bakarkoi eta zenbat, elkarkoi, baina bakardade ezarria ala elkar-bizitza nahitaezkoa hautatzera behartzen banaute, uste dut bakardadera joko dudala. Eta ez uste berau txikiesten ari naizenik. Aitzitik, esango nuke bakardadearen leizea ez dela bakarrik –eta agian, batez ere– bakarrik daudenena, baizik ertza urrats batera nabari duten beste askoz gehiagorena. Izan naiteke hauetako bat. Naiz. Baina neure buruaren erasoak ezagutzen ditut. Besteenak, ez. Ez naiz eliz dorre zapal horiek bezalakoa, zeintzuek gorputz burumoztu baten monumentuak diruditen. Ez naiz orratz-dorre gerlari horiek bezalakoa, zeintzuek diruditen zeruari jaisteko eskatzen ari direla, ezten amorratu bat sartzeko. Ez naiz. Ez dut pretenditzen mundua diferentea izatea. Nahikoa dut neu diferentea izatea.

## *Erasmusena*

Gizakia da izaki arrazional bakarra. Hots, zentzuz pentsatzen eta hain gabe jokatzeko dakiena. Adimenak egiten du izaki bat absurdoa izan ahal dadin. Ai, ama! Ezjakintasuna misterio zoragarrien iturburu da. Eta oso kreatiboa, gai baita edozer modifikatzeko. Jakituriak ere ez dauka beti zuzena izan beharrik. Gezur pozgarriak esaten dakienak egia mingarriak ezkututzen jakin lezake. Alderantziz egiten dutenek barne erloju bat behar lukete, automatikoki gelditzekoa. Harreman azalek ez dakarte gatazkarik. Sakonek, ia beti. Naturala izateko mozorrotzen naiz, bai. Naturean, mozorro bat naiz. Txarra al da hori?

Norbere buruari barre egitea oso sana da. Egiozu barre hori esan duenari, eta ikusiko duzu noraino iruditzen zaion sana. Nik ezin diot neure buruari barre egin, grazia egiten didanean ez bada. Eta hori ezin dut aurreikusi, neure buruarekiko sentimendu gehienak bezala. Maizenik, negargura. Noizbehinka, harrotasuna. Ez gutxitan, dezepzioa. Gutxiagotan, harridura. Inoiz, nazka. Gutxien ustean, berriz grazia. Maitasuna? Kontzeptu esternoegia, nire barrua ukitzeko. Gakoa da nola eratu zikloak: negarguratik negargurara, harrotik harrora, dezepziotik dezepziora, harriduratik harridurara, nazkatik nazkara, graziatik graziara ...

Esan al dut ni zer izaki mota naizen. Eta zu? Autoritatez mintzo bazara, ezar dezakezu autoritatea. Autoritatera apelatuz mintzo bazara, denek ukatuko dizute bera. Izaki arraro samarra naiz, bai. Jendartea behar dut, jakinik behartuko nautela axola ez zaizkidan gauzez hitz egitera. Komunikazioa da interesatzen ez den asko entzutea, interesatzen den zerbait esan ahal izateko. Beste era batera esanda, komunikazioaren entusiastek nahi dutena da entzunak izatea. Ez dela guztiz horrela? «Oso ona zara» esanda ez duzu laketuko «onena zara» entzun nahi zuena. Nirekin ondo konpondu nahi baduzu, bete ezazu Erasmusena: «Benetako adiskidetasuna iristen da biren arteko isiltasuna atseginez doanean».

## *Nire abaroa*

Nire abaroa ez da haurtzaroa, baizik haren oroimena. Eta oroitzapen maizkoenak, nahiz eta ez maiteenak, zorigaitz gaindituak dira. Maiteenak, huskeriak, non nire pertsona ez baitzen ezertara behartua. Jolas txiki bakartiak eta bilaketa ezkutua. Liluratzan ninduten hegazti migratzaileek, baina maiteago nituen lurralde bat defendatzen zutenak.

Esan zidaten zahartzaren gauzarik onena dela ezer inportantek ez dizula axola izango, baina gripe bat zahartzarekin erratu duena ez bedi berriz erratu pentsatuz, gripea joatean, adina ere joango zaiola. Hortz eroriak ez du mihirik hozkatzen. Lanak ez dira amaituko, baina iritsiko da gauza ez izatea. «Inork ez du zahartu nahi» –entzun ohi da maiz, eta gero oso bakanak saiatzen dira ebitatzen.

Gorputza zaintzea norbere burua maitatzea da. Gorputza asko zaintzea beste zerbait maitatzeko modu bat da. Oso humanoa, noski, ze maite zaituztela jakiteak ere ez badizu eragiten, ez zaude ondo. Zenbat nekatzen nauen obserbatua izateak! Konpromiso larri baterantz noanean, bidetik apartatzen diren bidexka guztiak iruditzen zaizkit zorionbide. Porrotera makurtzeko erabakia ere zorion maila bat da, alferrik borrokatzetik askatzea den neurrian. Gehiago makurtzen bazara, atsekabe handi baten ona da aurreko atsekabe handiak albora ditzakeela. Ikusten duzunez, ez zeunden «hain hondoan». Itxarotekoa da, beraz, oraingoa ere ez dela izango «hondoan».

Tristura baten sakonena da uste duzunean inori ez diozula esan behar. Lasaigarri bat nahi baduzu, pentsa desordena dela ordena diferente bat. Nabarmentzen den ordena beldurgarri baita. Desfile militarrek, adibidez. Dedio! Hortxe darraite, baina gertaera bat egia izateak ez luke izan behar aski arrazoi hura muturretan jar dezaten. Biolentzia badela jakitea ez al da nahiko larria, gainera ikustera behartu gaitzaten?

## *Eskerrak zaborrari*

Eskerrak baden zabor-telebisioa! Ken zaborra eta desarmatu duzu telebisioa, zeinaren onura gorena baita ebidentzia unibertsalera jaso izana gizakiaren izate zuntzuna eta biolentoa. Pantaila txikitzeak ez dakit zaborra kanpoan utziko lukeen, hasia bainaiz ikusten mugikorren ziluetek ordeztuak dituztela ahur askotako marrik. Eboluzioa prebisiblea denez gero, laster abiatuko da gizaki mota bat, belarri planoak dauzkana. Edo hatz lodiak ontto bihurtuko direna. Ez da beharko. Ordurako, ikusiak izango ditugu, kafetegi batera sartzean, mugikor-taldeak mahai gainean, elkarrekin mezu-jokoan, eta bitartean, jabeak parkean, euren txakurrak asaskatzen.

## *Gurutzeko Kristo*

Fernando Beorlegi pintore eibartarrari galdetu zioten: «Ez al da zaila bizitzea zure pintura aztoragarriekin?». Erantzun zuen: «Gauza zailagorik egiten da. Badira euren logelan gurutze bat daukatenak».

Ez, Beorlegi! Atsegin handi bat eragingo ez balu, ez legoke gurutzerik oheburuetan, bakar-geletan, banderetan, hura ikusia duzun toki guztietan. Ez lebilke bularretan, autoen ispiluetan, tatuaje sakonetan. Ez al duzu ikusten zer samurki muin ematen zaion zorionean, eta zer saminki, desesperazioan? Zerbaitegatik izango da artistek hainbeste gozatzea suplizioaren detaileak zehazten.

Begira nago Kristo Gurutzekoaren eskultura prototipiko bat, eta hedonismo lokartu baten estampa dirudi. Azala depilatua du, lozio hauta batekin igurtzia. Soldadu trakets batek egitekoa ez da hori. Gurutzekoaren beso eta ahur iltzatuak erabat laxo daude, euren ahalegin bakarra bailitzan iltzeei doi-doi eustea, aska ez daitezen. Oinak elkarren gainean pausatzen dira, txandaka suposatzen dut, zeren belaun bat bestearen gainerantz saiatzen baita, probatzeko bezala ea joateko moduan dauden. Dantza lasai baten mugimendu suabe bat ere izan daiteke, buruaren kontrako simetriak iradokitzen duela, gozo-gozo: «Ez! Egon hemen pixka batean».

Begiak itxita daude, baina, aurpegi makurtuaren norabidetik, garbi ageri da oinetako iltzea ikusi nahi dutela. Horretarako alboratuko zen apur bat belauna. Aurkitu dute begiek iltzeburua, eta oreka kruziala. Langa bertikala. «Hementxe gaude ondo». Une batez iruditu zait hilda zegoela, bake-bakean iraungia, baina hil batek ezin du horren gustura egon. Michelangeloren Crocifisso biluziari begira nago.

## *Gillotina oheburuan*

Gurutzea eta gurutziltzatua hain ondo datoz elkarrekin, ezen anatomikoki osagarriak ematen baitute. Lantza ere igartzen da karino osoz sartu zela bihotzera, nahiz eta, beharbada, alde okerretik, odol-hari xoil bat jaisten baita eskuin saihetsetan behera. Gurutzea zer material mota den jakitea (zura omen) ez da erraza, aditua izan ezik, hain baitago finki ukendatua, soldadu trakets batek inoiz egingo ez zukeen moduan. Oinetatik beheranzko zutoin zatia eta burutik goranzkoa, eta eskuetatik alboranzko langa zatiak, neurri exaktoan ageri direla ohartzen naiz. Ez dago dudarik gurutze ideal baten proportzioak direla.

Besoen posizio naturalak angelu zuzena baino eroriago behar lukeela dirudi, baina alderantziz daude, esanez bezala: «Iltze gozoetara iritsi behar dugu». Buruak ere eroriago behar luke, baina badirudi kokospean ezkututzen den iltze batek eusten diola. «Heldu baten burua eta nerabe baten gorputza», diote kritikariek. Zer nerabe mota, ordea? Paparraren lautasan nabariak ahalegin aparteko baten ondorio izateko itxura guztia dauka, nondik atera behar baita, egilearen gogoan, bular omitituak eta iztai arteko detaile leundua salbu, Jainkoaren Seme femenino bat zegoela. Michelangeloren Crocifisso biluzia.

– «Non dago suplizioa?» –galdetuko duzu, Beorlegi, arrazoiz. Horretarako, Jesusen ezker-eskuineko lapurrei begiratu behar diezu, gutxitan ikusten direnak eurok. Eta urrunera gehienetan. Hor bai atzemango duzu oinazea, itomena, exasperazioa. Figura horiek ez zinateke ausartuko zeure oheburuko horman esekitzen. Kristo bera ere ez, seguruenik, izan balitz gillotinatua, laurdenkatua, enpalatua. Gillotinatu bati muin emango al zenioke? Begiak zabalik, zaila. Oheburuko horman zintzilik, soka-bilurra lepoan duen gorpu bati begira lokartuko al zinateke?

«Zergatik ez?» –esango duzu–. «Badira euren logelan ...». Bai, bai. Zurekin tematzea zaila da. Hala ere, onartu behar duzu gurutzeak suplizio atsegina izan behar duela. Nola esplikatzeko da, bestela, hain maiz agertzea bere seinale laztana («aitaren»), futbol-zelaietara irtetean, adibidez? Iruditzen al duzu, kasu berean, gillotinaren keinua, denei lepoa moztekoa

## *Kristo gorria*

Bai, Beorlegi. Zure pintura aztoragarriekin bizitzea zaila izan daiteke, baina gurutzeari serenitatea, gozotasuna dario. Erosa ere baietz esango nuke, hainbesteko errekkurentziatik atera beharra dagoenez. Zuri zail egingo zaizu ulertzea, baina ni Michelangeloren Crocifisso biluziari begira nago. Antzeko guztiei begiraturik, ikusiko duzu autore bakoitzak ahalegin berezi bat egin duela, Kristori aire pertsonal propio bat ezartzeko. Horrela, irudikapen guztiak lerroan jarritz gero, benetan zer diren ez dakien batek pentsa lezake beso irekien ariketa bateko une ezberdinen sekuentzia bat dela, «soinketa tentea» dei litekeen atalean.

Eskultore, margolari eta marrazkilari gehienek oihaltxo bat edo tanga bat erantsi diote Kristo biluziari, espiritu alaiago bat emateko. «Segi zuek igeri. Ni hemen gelditzen naiz». Zerbaitegatik esan zien gurutziltzatuak zelaitik begira zeuden emakumeei: «Ez egin negarrik nigatik. Egizue zeuengatik eta zeuen umeengatik». Artista batzuek idulki bat ere jartzen diote oinetan. Ez dakit. Iltzeak gutxiestea dirudi. Bakarren batek, idulkiaz gainera, oin bakoitzean iltze bat txertatzen du. Hori ere ez dakit. Ez dirudi Jainkoaren seme batek hainbeste erraztasun behar lukeenik.

Badira gurutziltzatu kezkarriagoak, Nestor Basterretxearen Arantzazuko Kristo Gorria, adibidez. Bertsio honetan ere ez da nabari oinazetik. Bai, ordea, haserrea, aurrean jartzen zaion guztiari aurpegiratur bezala bi mila urte alferrik daramatzala gurutzeari. Gaizki interpretatzen ari naiz. Ez dago gurutzerik. «Kristo piztua» da. Lantza bakarrik mantentzen da, suspentsioaren berme, izate berria guztiz finkoa ez bailitzan. Zergatik edo hargatik, ez dirudi pizkundeak grazia handirik egin dionik. Besoak ere gurutze forman dauzka oraindik. Horrelako atrebentziak, Beorlegi, areago legezkiok zurea bezalako buru perbertso bati. Gainerakoan, eszena originalaren irudikapen gehienek, Golgotako emakume sentiberegi haiek oker interpretatu zituztenek, ez dute eragiten zuk uste duzun horrorerik. Proba zeure gorputzean eta ikusiko duzu zein gozoa den heriotza gurutze batean. Zuk ulertzen didazu, ezta, Pascal?



## *Libre naiz*

Itxi begiak eta aurrera. Jakintsu handiek bezala. Arazo guztiak konpontzen dakit, neureak izan ezik. Uste dut besteei ere berdin gertatzen zaiela. Horrela ulertzen da arazo gehienak konpontzeke egotea. Lanbide batzuen xarma da gorrotatuak izatearen graduak erabakitzen duela euren hierarkia maila. Ni ez naiz hain profesionala. Libre naiz inoren gaitzetatik eta neure pentsabide antzuetatik. Auzia ez dira –barka, Pascal–ongia eta gaizkia. Auzia dira gaizkileak eta ongileak. Ez eska niri bizia ematerik inorengatik. Eskadazue, soilik, bizi nadila zuengatik.

## *Mirari bat naiz*

«Mirari bat naiz!». Eta zer irabazten duzu mirari bat izateaz? Bai, bai! Zu eta ni eta denak. Bakoitza mirari bat gara, baina mirari hori inor gutxiri interesatzen zaio. Neuri ere ez askorik, ez baitut osoki kontziente izan nahi neure gorputzaren aritze mirarizkoaz, bihotzkoak eman ez deidan, pentsatuz ezin duela izan. Munduari esplikazio bat eman nahian hil zirenak imitatzekeo tentaziotik galdera soil batek libratzen nau: «Munduak zertarako behar du esplikaziorik?». «Niretzat, Jainkoa da izatearen sakontasuna» –irakurri nion pentsalari handitzat zegoen bati. («Para mí, Dios es la profundidad del ser»). Ideia bat al da hori?

«Filosofiaz burlatzea filosofia da», idatzi zenuen, Pascal. Ba, nik burlatzeko ere ez dakit nahi dudana horrelako filosofiari. Onartzen dut aurreratzeko era bat izan daitekeela 100 galderetatik baten erantzuna aurkitzea, baina 99 galdera alferrekori bueltaka ibiltzea ez zait iruditzen maila inteligentea. Mundua neuk ezin akabatzearen penatik kontsolatzen nau jakiteak ezen neu, behintzat, akabatuko naizela munduarentzat. Zer ezezaguna beldurgarri omen. Ni ezagunak beldurtzen nau.

Pertsona negatiboek abailtzen naute. Pertsona positiboek akitzen naute. Ezer transmititu nahi ez dutenekin bakarrik konpontzen naiz ondo. Sozialitate zaila daukat. Larritzen naute atsedenean ere itomenen bat behar dutenek. Artegitzen naute erakusketa bateko koadroei ispiluari bezala begiratzen dietenek. Hozkitzen naute anatomiarako marraztuak diruditen gorputzek. Kirrizkatzen nau terrazako bare lehortua zapaltzeak. Izutzen naute interbentzioa amaitu eta kameratik zintzilik gelditzen diren aurkezleek. Samurtzen nau bere sinaduran zer jarriko zalantzan dagoenak. Miragarria naiz, ezta?

## *Nire droga*

Nire droga besteak dira, guztiz kontrako efektuekin. Batzuetan, biziturik etxeratzen naiz. Beste batzuetan, deprimiturik. Nekaturik, beti. Pertsona onak badira, baina aurkitzea asko kostatzen da. Zer da «pertsona»? Pertsona da fragilitate bat gehi zerbait botere, zerbaitetan. «Gehi» bat gabe, hauspena ia segurua da. «Gehi» batekin, boterearen maila ezagutzen duzu. Maila hori irits daiteke pertsona iraungitzeraino, bao bat desagertzen den moduan, perspektiba nabarmentzen denean. Niri dagokidanez, goian nagoenean, behearen mehatxuak hertzen du nire euforia. Behean nagoenean, unipolarra naizela sentitzen dut. Bada fatalitatea gero!

Neure droga partikularrera itzulirik, denak ezin ditut maite, kopuru handiegia osatzen baitute maitagarri ez direnek. Zozoak zergatik kantatzen dit komuneko leihora alaitasun mingarri horrekin, neu triste nagoenean? Ez dakit. Hizketan ari naiz, hitzei aplikazio bat ematearren, baina badakit, besteek zer dioten ez didala axola diodanean, ez naizela lar fidagarri. Baldin gorespenak pozten banau –hori badakit–, kontrakoa ezin zait indiferente izan. Gainerakoan, zure lan akigarriek ez naute batere nekatzen.

- Munduko parajerik onena geurea da! –harrotu zen.
- Ikusi al duzu, ba, besterik? –galdetu zioten.
- Ezta gogorik ere!
- Proba ezazu. Agian gustatuko zaizu –ekin zioten.
- Zertarako? Nik ez dut nahi falta zaidan bizialdia probak egiten pasatu.

## *Irribarrea*

Ni hementxe nabil gusturen. Ez al zaizu gustatzen lantzean kanporalditxo bat, Canarietara baino ez bada ere? Ba, ez zait gustatzen, ez. Eta seguruenik, badakit zergatik. Ezin dudalako. Aspaldi ikasi nuen ezinari -ezin batzuei- nahimen librearen izaera ematen. Niri gustatzen zaidana da komunean esertzea, liburu mardul bat eskuetan dudala. «Zer ondo eginda dagoen nire gorputza!». Banaiz zerbait! Zer ondo eta gozo erantzuten didan gorputzak! Banaiz norbait! Arima ere hor dabilke nonbait. «Zure irribarrean zeure arima damaidazu». Ez, mesedez! Gorde arima zeuretzat, eta eman irribarrea.

Ez da denbora luzea gizaki ustez aurreratuenek defendatzen zutela «koloredunek» ez zeukatela arimarik. Biziera batzuk ikusita, hobe lukete ez eduki. Baina horrek ez bailieke sufrimendua eragotziko, pentsatu behar da oso zorte txarra izan zutela gizaki jaiotzeaz. Espezie ez-arrazonaletan ere, ez naute hainbeste samintzen animalia hilek, nola bizi ezinik dabilzanek.

## *Denborarekiko*

Denborarekiko izaki intratablea naiz. Larri nago zeregin bat lortu arte, eta larriago gero, zeregina amaitu arte. Horri askatasuna gehitzen badiozu ... Askatasuna da gehienekin batera joatea garrantzi gabeko gauzetan, eta gehienek alderantziz, garrantzizkoetan. Oratore ona izateko, eskuen maneiua funtsezkoa omen. Eta eskuak moztuta? Oratore insolitoa izan zitezke. Ba, moztu eskuak! Nik oratorea izan nahi dut. Baina nortasuna ere beharrezko izan; eta hori ez dakar haize alda batek. Banuen gogoia puntu eta koma bat nonbait sartzeko! Kontatuko bagenu zenbat gauza egin ditugun ezetz ez esateagatik, ohartuko ginatke gure nahimen librea ez dela hainbestekoa. Nire segurantza da komun bat eskura edukitzea. Ezin naiz oratorea izan.

Badira animaliak, zeintzuen itxura graziosoa gaintitzen baitu euren izenak, hala nola fakokeroak. Bazen morroi bat hain kautoa ezen bestialismoa kondoiarekin praktikatzen baitzuen. Morroi haren izenak ere graziosoa behar zuen. Kondonio. Gure burua da erreserba natural bat, non hegaztiak nahieran datozen eta doazen, eta batzuetan pausatzen diren. Eta non gorotza egiten duten, beti. Horregatik behar dut komun hurbil bat.

## *Kantatzen duen herria*

«Kantatzen duen herria ez da hilko». Poztuko ninduke aurreikuspen horrek, ez baneki galduak diren herri guztiak euren bikaintasuna kantatzen hil zirela. Zorionez, nik ez dut horrelakorik ikusiko, baina, badaezpada, zerbait utzi nahi dut neure hizkuntzaren iraungarri. Erremediorik ez, noski! Ez nuke handitu nahi erlazio fatidikoa, zeinaren arabera hizkuntza baten osasuna inbertsoki proportzionala baita proposatzen zaizkion soluzioekin. Garenak gara eta gaudenak gaude. Muga horren barruan, hona soluzio bat: geure gutxiengoa halako goitasunez landu non gehiengoak beharrezkotzat baloratua izango baita. Baldin arazo nagusia gutxiengoaren beraren barruan ez badago. Itxaropen lar oinarriturik ezin da eduki, berezitasun lokalek gehiago tiratzen diguten bitartean komuntasun nazionalek baino.

Urrunegi joan naiz. Abiaduran ezin dut pentsatu, eta nik pentsatuz bizi nahi dut. Ez dut ezer irabazten gepardo inkontziente bat izanaz. Maite ditut gaueko zaunka zehazgabe horiek, motibo gabeak, hutsari eginak, ofizio soilez. Ez dut behar abiadurarik, geroz lurralde txikiagorantz noala. Azkarrago joateak ez dit bermatzen ni baino azkarragoek harrapa ez nazaten. Funtsean, nire askatasunak oso gutxi eskatzen du: ez izan eraso. Zaila!

## *Ohean gelditzea*

Ohean gelditzea gozoa da, baina laguna logelatik irten arte, ez egin atsegin keinurik. Atsegindu ninduen pentsatzeak bazela dagoeneko ordu erdi, nire maitea etxetik irten zenetik. Elurreko betaurrekoak ziruditen bularretako haiek! Ahaztuta geldituak duda gabe, baina apropos utziak ziruditen. Jaiki nintzen noizbait, eta arrain bat eskuz harrapatzea zer izan litekeen ikasi nuen, bainuontzian eroritako xaboi oboideo bati heldu ezinik, grifoa buruarekin jo nuen arte. Atsegina ere bada aberia bat, ezkutuan pasatzeko modukoa izan bada. Zer polita den bizitza! Batzuetan, alferrik borrokatzeak asko animatzen du.

Ez naiz lotsatzen euro bat eskuratzearen poza sentitzeaz. Poz bat da. Zer dauka fideo-zopa honek? Nire haurtzaro guztia. Bidaia bat tokatzen bazait, joan naiteke Kaliforniako San Frantziskora, baina nik benetan nahi dudana Bilboko San Frantzisko da. Haurtzaroko emozio-kolpeak berritzeko gauza naizen bitartean, badut etorkizuna.

Klinika batean, apaiza kopoiarekin komunioa banatzera gelan sartu zenean, emakumeak galdetu zuen: «Zu al zara kardiologoa?». Galdera efektiboa izan zen, kopoa laster desagertu baitzen. Ez, noski, hain efektiboa nola motozerra bat abiarazi zutena osoko udal bilkura batean. Hura burrunba! «Orain segi hizketan!», motozerradunak. Eta alkateak: «Ireki leihoak!». Ba, bai. Leihoa da irekidura bat, zeinaren dohain onena baita itxi ahal izatea. Kontua da norbera zein aldetan dagoen. «Harrikoa egin gabe ezin da etxetik irten!». Arrazoi duzu. Lapurrak sartzen badira, ez bezate izan entretenitu beharrik harrikoan. Ba, ez. Ni sekula ez naiz irten harrikoa egin gabe, baina senarra umezain utzi nuen, eta bueltan mozkorturik zegoen. Umeak txupetea sartu nahi zion ahotik.

## *Zoriona*

Zoriona lar kapritxosoa da luzaro irauteko, baldin tartean ez badago gaitasun bat okerrago daudenekin konparatzeko. Zuzenki esanda, zorionaren gako handi bat da okerrago daudenekiko abantailez ohartzea. Koherentzia zerbaitez irautea lortzen duen bakarra ergeltasuna da. Ardiari kenduko diozu bulunba, baina ez balaka. Berezkoa ez da abiapuntu txarra, baina abiapuntu on batek ez dizu bermatzen inora iristerik. Giza portaeraz ulertu ezin dudan enigma nagusietako bat da zergatik gustatzen zaigun hainbeste inorengatik ekitea. Enigma handiago bakarra da norbaitek esatea: «Niri ez zait gustatzen besteengatik ekiterik». Ba, begira zaitetz beti bere haurtxoaz mintzo denarengandik, ze «haurtxo» hori txakur bat izan daiteke. Doi-doi libratu nuen oina gorotz marduletik, zeina aurretik zapaldua baitzen erdi-erdian. Buf! Baten batek a zer maldizioa bota behar zuen hemen!

Gero kontsolatzen naiz pentsatuz gizakia animalia irrazional bat dela, salbuespen batzuekin. Hots, naturaren errore batzuekin. Errore horietako bat da arrazionaltasuna, eta orduan saiatzen naiz pentsakizunetan babesten, baina gauza asko euren pentsamendua iritsi aurretik gertatzen zaizkit. Orduan, gaizki hasten dena gaizki amaitzen? Ba, ez. Gaizki hasten dena ez da amaitzen. Ez naiz izango hain optimista nola zioena ezen bizitza alu honen onena dela amaitu egiten dela. Asko pentsatzearen ondorio onetako bat da nahikoa dela gutxi pentsatza. Gutxi eta gaizki pentsatzea ez da erraza, noski, baina badirudi horixe dela arrazionaltasunaren batez bestekoa.



## *Sanoak gaixo*

Defizientzia batengatik burla egiten badizute, bila ezazu beste bat handiagoa, errespeta zaitzaten. Ate guztiak zabaltzen dira ezgaitasun baten aurrean. Baina ate birakariak dira, berriz ixten direnak. Beste muturrean, osasun hutsa bera ere bada osasunaren nahiko galgarri. Organo baten zain dagoena istripuen gutxitzeak larritzen du. Sano daudenak, berriz, gaixotzeko beldur dira, eta laborategiak pozik. Ez da erraza osasuna zaintzea. Ezinean banabil, osasuna bera galtzen zait. Ahalean banabil, neuk galtzen dut bera. Gaixo sendaezinentzat erremedio alternatiboak infinituak dira: «Ba, urliak ... ba, besteak ...». Medikuek ere esan zion:

- Noizik behin etorri behar zenuke medikura.
- Ez pixka batean. Inguratuta nago gaixotasunez. Ez dut sartu nahi zingira horietan.

Egoismoaren balioak ere beti ari dira aldatzen, nahiz eta koherentzia bitxian. Gorputza luzitzeko botikak onartzen ditut, eta gaitz bat sendatzekoak errefusitzen. Utz dezadan horretan. Ez dut maite neure pertsonaz mintzatzerik, ez baitago gauza molestoagorik ezaxolaz entzun nazaten baino.

## *Ilargi zoragarri*

Ilargi zoragarri, poeta guztien inspirazio! Batzuetan, hodeiei «alde paretik!» aginduz doa. Edo ortzi urdin-urdin hori, non ilargiak, bakarrik, galduta baitirudi, inguruko izarrak ezabaturik. Ilargi-laurden kezka-garri ezegonkor hori, ez tentetzen, ez etzaten ez dakiena. Ilargi irten berri sutu hori ere, odol eske datorrena. Misterio bat izan daitekeela uste arazten digun figura egunero aldakor hori. Zer da bera? Haitz puska zakar eta hautseztu bat, argitasun prestatu batek xarmagarritzen duena. Lurra, berriz, bizia, hezea, frondosoa, ozeanikoa. Ilargitik begiratuta, zer edertasun ez luke sentiaraziko? Ba, ni hementxe bizi naiz! Eta luzaro. Ilargiari begiratzeak hainbeste hunkitzen banau –eta egia da!–, izan behar du nire aurreko berari begiratze guztiak berritzen dizkidalako. Hori ez da ilargia bakarrik. Hori neure oroimena da.

## *Tunela*

Tunela amaiturik, ihesa bakarrik falta zen. Bat-batean, isil-mezu eraisgarri bat iritsi zitzaigun: «Ez dago nora ihes egin». Oker guztiak aurreikusiak genituen, horixe izan ezik. Tresna susmagarriak ehortzi eta bakoitza bere desesperaziora zokoratu ginen.

Denbora luze, txit luze baten ondoren, «askatasuna» deitzen zen erresuman ginela, zirkunstantziak zarakartu ziren, eta une bat iritsi zen non ez baikeunden seguru tunelaz kanpoko mundu hura eremu harresitu bat zen ala, soilki, askatasun mugatu bat. Orduan erabaki nuen tunelgintzara itzultzea, neu bakarrik, isil-isilean. Ezin nuen jasan behinolako plan hura oroitzapen huts batean gera zedin betiko, helburua ezabatu zelako. Familian bakarrik susmatu zuten zerbait, baina ez zuten susmoa aintzat hartu, seguruenik ez zutelako ikusi nahi etxeko batek jarraitzen zuela bere bizitza eraikitzen porrot ziur baten gainean. Pertsona bakoitzarekiko ardura etxetik harago nekez iristen baitzen, ez nuen zailtasun handirik izan klandestinitatera itzultzen.

Metroak aurreratu ahala, munstroaren aurpegia marrazten ari zen, eta galeriari suge undulante baten forma emanaz joan nintzen. Inora iristerik ez bazen, bidea, behintzat, izan zedila kreatiboa. Ez nuen inon ezer esan, galdetuko baitzuten: «Zer zentzu dauka tunel batek, nora irtenik ez bada?». Eta Everestetik zer irtenbide dago?

Orain erosoago egiten zait lana, ihesaren antsietate gabe. Gozagarriago ere bai, neure gustuko tunela egin ahal baitut. Itxaroten dut, ongizate hau desegiterako, hila izango naizela. Zorionez, behingoz, heriotza ez da itxaropen bat, segurtasun bat baizik. Modua izan daiteke une bat non zorabiatzen bainaiz, ontzira huts egindako pixa-tantak garbitzera makurtzean. Inoren tantak garbitzera ere makurtu izan naiz, baina hauen gainean ez dut lortzen zorabio iraunkorrik. Maldizio bat, agian, aldardean banago. Buruarekin jo dut zorua, kank, eta horra! Amaitu da tunelaren beharra. Hor gelditzen da bera, nahi duenak hel diezaion.

## *Kartzelero maite*

Ezin naiz zutaz oroitu, maiteki ez bada. Maite zintudan aluki arakutzen gintuzunean, igurtzi mingarriak eginez. Maite zintudan, zuzendari handiputzaren aurrean zenioenean: «Hauekin ez da nahikoa 'urik ere ez' delakoa. Hauei ur zikina eman behar zaie!». Maite nuen zuk zerrikeria haiek guztiak egitea, banekielako gero etorriko zinela zigarrotxo bana eskaintzera. Eta han gelditzen ginen beste araketa alu baten ametsean. Maite zintudan, zenioenean: «Utzidazue hau neure erara egiten». Eta kartzelero batengan pentsaezina zen mesede bat egiten zenigun. Laburturik, maite nuen zure gureganako inpietate shakespearianoa agintarien aurrean, eta zure zolitasun eulerianoa guregatiko arriskuak saihesten.

Ez nabil humanismo horretaz zeinaren arabera, gogoia irekiz gero, maitasuna nonahi aurkitzen baita. Maitasuna, bizitzako arlo gehienetan -oso zirkulu nuklear batzuetatik harago-, salbuespena da, zu zinen moduan. Gehienek oso ondo eta batzuek oso aluki betetzen zuten euren zeregin estutzailea. Zeuk laguntzen didazu haien gomutatik min gutxiago hartzen, nahiz eta ez, ahanzteko beste. Bakarrik ahantz daiteke hil bazaituzte.

Behin egon nintzen zu gorrotatzear, gure tunel amaitua erori eta denborara, zeure lehen guardian haserrez galdetu zenigunean: «Zergatik ez zenidaten neuri esan?». Ausartu izan bagina -ez zen, ba, debatitu gabea izan!-, eta ihesa burutu izan balitz -ziur baietz zure laguntzarekin-, Lawrence Arabiakoarekin lehiatu ahal izango zinen legendan. Geu izan ginen zapuztu genuenak motiboa zeinagatik are maiteago izan beharko zintugun.

## *Gerraren onak*

Nire hortz horixkak seinalatuz, galdetu zuen nonzeberriak:

- Zu ere erretzailea?
- Ehortzailea –erantzun nuen.
- Ehor...?
- Hilotzaren zatirik ongarrienak jateko ohitura daukana.
- Garunak?
- Burualdea ez zait interesatzen. Ipurmasailak.
- Biak?
- Bat nahikoa izaten da.
- Sexuan lehentasunik?
- Egoeraren arabera.
- Ipurmasail eskuina ala ezkerra?
- Eskuina beti.
- O! –poztu zen nonzeberria–. Orduan ez daukagu lankide izan ezinik.
- Ezinik? –aztoratu nintzen.
- Niri ezkerra gustatzen zait.
- A! –lasaitu nintzen–.

Argi dago gerrak asko humanizatu gintuela.

## *Bizitza bikoitza*

Bizitza bikoitza zantarkeria dela diote. Ba, ni bikoiztasun etengabeen bizi naiz. Lurpeko ibai bat doa nire barruan, beti, bere emaria izanik pentsatze eta sentitze posible guztiak, euron ñabardura eta intentsitate guztiakin. Ibaia kanpo zirkunstantzien azpitik doa.

Ari naiz zurekin hizketan, eta nire barne ibaiaren xuxurla dantzut, arina baina argia, eta batzuetan ohila: «Noiz amaituko da kalaka hau?». «Bai gizakume zirina!». «Bai maitagarria!». «Bai alua!». «O! Badira oraindik pertsona on batzuk munduan».

Alegia, zeuk pentsatzen eta sentitzen dituzun gauza guztiak, amodioko uneak barne: «Hau azkarregi doa!». «Egizu azkar egitekoa!». «Zergatik amaitzen ote da hau?». «Gehiegi hustu nauzu, laztana! Jango al dugu zerbait?».

Barne ibaiak gutxitan bat egiten du kanpokoarekin. Maiz gurutzatzen dira, baina laburki. Bi hegazkinen lorratzak oskarbian bezala. Bi lerroen batasun osoa eta jarraitua lortu duzula? Kontagarri litzateke, baina ez konta. Pedantetzat hartuko zaituzte. Denek bizi dute fenomenoak zuk eta nik bezala. Onartuko dizut batasun sinesgarri baten engainuan saia zaitezten. Baita egiazat sinets dezazun ere. Bakoitzak bere kontzientzia ahal bezala gobernatu behar du. Ez pretenditu, ordea, nire barne ibaian murgiltzerik. Hor inpenetrablea naiz. Jainkoak bakarrik zeukan sarbidea nire ariman, berarengan sinesten nuenean, baina ez zuen gatazkarik sortzen. Horrexegatik utzi nuen.

Nortasun bikoitza dudala esan al dezaket? Dudarik gabe. Nortasun bikoitza, subjektu bakarrean. Hirukoitza balitz, «Jainkoa» esango nukeen. Izatez, alderantziz izan zen. Gizakiaren berdinegi eman ez zezan, izaki hirukoitz bat irudikatu zuten, baina, funtsean, zer alde dago hirukoitzetik bikoitzera? Azkenean, «ahalguztidun» bat irten zitzaien, gizakiaren antzekoegia.

Ez, ez! Nire bikoiztasuna ez da iceberg punta bezalakoa, baizik fluido bakarraren bi korrante ezberdin: korrante azala eta korrante abisala. Biziraupena eta bizipena. Fluidoak kontzientzia da. Ni. Neu.

Nire ibaia ez da inoiz azaleratzen. Eta ez da inoiz itsasoratuko. Agortuko da ni hiltzean, edo hura agortzean hilko naiz. Jarrai dezake biologiak, baina gizakia agortua da. Berdin zait hila dela esatea ere.

Noizbait lortuko ote dute barnetasun horixe ere gardentasun bihurtzea? Sinesten dut zientzian, baina ez hainbesteraino. Ala bai? Gizateria nola edo hala bukatuko denez gero, baliteke horrelaxe gertatzea.

## *Animaliak*

Animalia bat hil duzu, eta poztu zara. Tiroa huts egin duzu, eta zapuztu zara. Hil berdin poztu. Huts berdin zapuztu. Animalia hori ez zenuen behar. Zerbaitegatik hila izan zedin ere ez zen behar. Zoaz Arratera eta ikus plater-tiroa. Ikus, jarraian, uso-tiroa. Zer du proba honek aurrekoak ez zuena? Bai! Usoaren mugimenduak zorizkoago direla. Seguru? Objektu mekaniko askoz zorizkoagoak fabrikatzen dira, oso merke. Orduan? Argi dago. Hiltzeak pozten zaitu. Alegia, zure atseginetako bat hiltzea da. Eta lagunak izan gaitezen nahi al duzu? Agian, ez da hiltze soil bat. Baliteke masakrea izatea exzitatzen zaituena, usoak erreskadan eroriz, lumak airean. «Arrateko Ama ...»

Neure itzartzeetako batean, gizaki bakarra naizela aurkituko banu, uste dut biziraungo nukeela. Itzartze berdin batean, txori guztiak falta direla aurkituko banu, seguru nago ezingo nukeela eraman.

Ez dakit argi zezenak benetan sufritzen duen, ez dakidan bezala adar batek gibela zeharkatu dion toreroak benetan sufritzen duen. Ez dakit zuk benetan sufritzen zenuen, sokatik eseki zintuztenean. Arrazoia simplea da: ni ez naiz zu. Zeu ere ez zara ... Bo! Har ezazu eskopeta eta tiraiozu zeure ... Zeuk hautatu zeure zeri. Ez duzu deus sufrituko.

## *Krimenak artean*

«Zezenketa gabe, arterik onena galduko genukeen». Gurutziltzatze gabe ere bai (Basterretxea, Velazquez, Dalí). Fusilamendu gabe ere bai (Gamborino, Goya, Manet). Bonbaketa gabe ere bai (Picassoren *Gernika*). Horrore belikorik gabe ere bai (François Gerarden *Austerlitz*, Veroneseren *Lepanto*). Tortura gabe ere bai (Ribera, Murillo, Tiziano). Eta? Artea espresio bat ez al da? Espresio batzuek estetika baliotsu bat edukitzeak egin al dezake euren eduki brutalen erreprodukzio errealean gozamina sentimendu noble bat izatea? Ba, nik umetan ... Bai, bai! Badakizu ume-senak kriminal samarrak direla, ezta?

Espresioa bera ere izan daiteke gorrotagarri, gratuitoki biolentzia denean. Arteak behar badu efektu artistikoak oinarritzea biolentziaren exhibizio exasperantean, zeuretzat ondare guztia. Tiro bakarra nahikoa den tokian, zergatik jasan behar dugu ehuneko tarrantada bat? Ulertzen dut. Ken biolentzia eta hil duzue zinea.



## *Artista nahia*

Artista izan nahi nuen, eta zioten: «Pertsona bikaina da». Balaku-planta behartuen azpian, nik nahi nuena zen artista bezala izan miretsia, nahiz pertsona bezala izan ahantzia. Alderantziz izan zen, eta orain behintzat, arrazoi onak dauzkat suizidatzeko. Gozaten dut pentsamendu fatal horrekin, bai baitakit ez naizela gauza izango. Sinesten dut munduaren gaineko garaipen posible bat artea dela. Tira, garaipen bat ez dakit, baina artea posible da. Mundua interesatzen ez denean, oso ondo bizi daiteke bertan. Ez dut nahi nigatik esan dezaten lehoiak menderatu zituena, azkenean, bare batek eraitsi zuela. Zorion handia dut izatea hiri batekoa, zeina ez baitzuen ezein konkistarik fundatu, ezein monarkak saritu, ezein enperadorek nominatu. Hiri hori ez da existitzen, baina hangoa naiz.

## *Hilezkortasuna*

Hilezkortasuna zer den ez dakit, baina diote: «Izan behar du zerbait». «Zerbait». Esaterako, koman zaude. Organismo bizi bat, oso bat zara. Pertsona bat zarela diote. Soil-soilik, zerbait larria gertatu zaizu. Nahikoa al litzateke koma-egoera eterno bat, «zerbait» hori izateko? Korde gabe zaude. Gizaki bizia eta osoa zara. Pertsona bat zara, eskubide guztien jabe, biziarena barne. Nahikoa al litzateke inkontzientzia eterno bat, «zerbait» izateko? Lo zaude, osasun osoan. Nahikoa al litzateke lo eterno bat, «zerbait» hori izateko? Kuluxka sakon batetik kolpera itzartzean, bada une bat non ez baitakizu zein denboratan, ez zein mundutan zauden. Nahikoa al litzateke une llabur, noraezkor hori betikotzea, «zerbait» estimagarria izan zaitezten?

Eta fedea? –galdetzen didazu, Pascal. Fedea, zerena? Uste al duzu zure kontzientziak, oroimen baten subjektu argiro identifikatua eta sentitua izan zen Ni Pascal» hark, kontzientzia berbera izaten eta eternoki garatzen jarraituko duela, «Ni Pitagoras», «Ni Avizena», «Ni Galileo», «Ni Newton», «Ni Elhuyar»-ekin batera? Uste al duzu zeuen aurkikuntzez eta zeuen mundualdiaz aurrez aurre hitz egin ahalko duzuela, bere izatearen formula hipotetikorik ere ez daukazuen betiraun batean? Esanez edo pentsatuz, adibidez: «Ni naiz Pascal hura, 1623ko ekainaren 19an jaioa, Clermonten, gero matematikan, fisikan eta filosofian... Oraintxe balitz bezala gogoratzen dut nola hil zen gure ama, nik hiru urte nituela, eta nola sei urte zituen nire arreba Gilbertek esaten zidan: ‘Orain neu izango naiz zure ama’. Baina gero ohartzen nintzen zoko bat bilatzen zuela, negar eta negar egiteko ... Bada hutsune bat nire gogoan, heriotza deitzen dutena, baina hemen naiz berriz ere lehengo kontzientzia hura, osorik eta berbera».

Horrela izango dela sinesten al duzu? Zuk, seguruenik, baietz diozuke. Izango dela «nolabait». Nik ez dakusat nola egon ahalko naizen zuen artean, «nolabait» baino era zehatzagoan, eta «zerbait» baino gehiago izanez. Kontzientzia argi bat tarteko ez bada, eta kontzientzia hori neu ez banaiz, nork sentitu behar du «nolabaiteko zerbait» hori? Zuk, Pascal? Beste kontzientzia batek? Ba, ez zait interesatzen. Maite zaituztet zu eta guztiak, baina horretarako, neu izaten jarraitu behar dut. Ni neu, neure oroimen kontziente honekin. Izan gaitezen zintzoak, Pascal. Zuk eta nik ez dugu hitz egingo «sorioneku» eskua moldatu zuen gizakiarekin. Ez dugu hitz egingo Santimamiñeko bisontek margotu zituztenekin. Ez, behintzat, «zerbait» edo «nolabait» bakarrik bagara eta badira. Badakit. Heriotza hain da aipatua ezen neuk ere pentsatu izan baitut «zerbait ezberdina» zela. Misterio bat edo. Izatez, hain da gauza sinplea nola: «amaitu da».

## *Mirarian bizi*

Banoa trenean Bilborantz, bakarrik jende artean, eta umetan bakarrik nindoaneko beldur berdinak jo nau. «Ea galtzen naizen!». Ordukoa eta oraingoa hain sentipen antzekoak dira, non ezingo bainuke esan oraingoa sentipen berri bat izan den, ala orduko hura bera, orain berriz azaleratua. Orduan ikaratu nintzen, baserri aho-handi batek, bere begi txikiekin, trenbidearen kontra-kontratik begiratu zidanean, esanez: «Hi ere hor al hoa?».

Galdera kezkarri berdina egin dit gaur, baina ez dakit hitz berri berdinak ziren, ala umetako berberak, orain berriz entzunak. Garbi dagoena da haur hura eta agure hau kontzientzia berbera garela. Alderik izatekotan, handiena izan behar du orduan mundurantz sentitzen nintzela, eta orain, mundutik harantz. Beste alde bat izan daiteke -agian, abantaila bat- orduan ezin nuela sentitu orain naizena, eta orain bai orduan nintzena.

Nire bizi-testamentua izan liteke bizi nadila harik eta kontzientziaren jabe eta jakile naizen arte. Hots, eboluzio eternoaren gailur-emaizta den kontzientzia sentitzen dudan arte. Nire haurtzaroa, adibidez, ez zen izango mirari kosmiko bat. Baina urteen buruan, hura eta bizitzako atal guztiak erreskadan berritzeko dohaina fenomeno naturalik gorentzat jotzen dut. Ez naiz berritzen aspertuko, bera berez iraungi arte.

Onartzen dut, hala ere, «jokoa», Pascal, zuk hain maite zenuen bezala. Alde horretatik, ulertzen dut fedea era on bat izan daitekeela bizitzeko. Bizirautea, ordea, beste kontu bat da. Nik egunero pentsatzen dut ez naizela hilko. Orain arte beti asmatu dut. Behin huts egingo dudalako, ez diot utziko beste guztietan asmatzeari. Hilezkor izan ezin badut, bizi naiteke banintz bezala.

## *Feminismoa*

Justizia, Justiziaren esku. Ez dirudi printzipio efizientea. Justiziak 200.000 urte daramatza justizia egiten. Orain, hezkuntza, heziketa, informazioa, kontzientzia, sentsibilizazioa ... Horiek guztiek, «Justizia» izenekoaren baitan, 200.000 urte daramatzate jardunean, eta gauden moduan gaude. 200.000 urtean egin ez duena ez du egingo beste 200.000 urtean. Argi dago. Bide paraleloak behar direla. Asko eta anitzak.

Ebidentetzat jo behar da gizona emakumea baino biolentoago dela. Errazago da heroi nazionala izatea, maitale ona baino. Emakumea biolentoago ez izateak bakarrik libratzen du gizadia eztanda global batetik. Ez dut uste inertzia edo ezarpen sozialen kontua bakarrik denik. Uste dut emakumeari askoz gutxiago interesatzen zaiola konpetentzia. Uste dudan bezala geroz gehiago berretsiko dela nire susmoa ezen artasuna naturaren errore bat izan zela.

Animalien erreinuko espezieetan, gurearen tamainako gehienetan behintzat, arrak ez dio erasotzen emeari. Honek, bere neutraltasun inpasiblearen itxuran, izan zuen eta izaten darrai partaidetza aktibo bat, bera baita azken erabakiaren, hots, ar jakin bat hautatzearen erantzule. Joko horrexen barruan garatu zen gizakia. Beharbada, joko horrexen ondorioz. Naturaren «errore bat» esan al dugu? Ironia soil bat. Naturan ez dago etikarik. Berdin zaio okerra nahiz zuzena. Zentzugabea da naturari zuzenketak erreklamatzea, zuzenbide «natural» bat aurkitzeko ahaleginean tematzen direnen dezepziorako. Hain da naturala ekilorea zabaltzea nola tigreak gizakia jatea. Zuzenketak adimenak ekarri zituen, hain zuzen biolentziaren erabilera efektiboagorantz.

Biolentzia sexualean, oso probablea da osagai biolentoa garrantzitsuago izatea sexu-grina bera baino. Horregatik, zaila da gaiaren konponbidea etortzea hezkuntza sexualetik, «sentsibilizaziotik» edo legeen baliabide posibleetatik. Beti izango dira ahalegin horietatik at edo aurka jokatzeko prest diren perbertsitate ugariak, banakoak zein elkartuak. Bere egitura orokorraren faktore dominantea biolentzia den mundu batean, arrazoiaren ahaleginek ez dute neutralizatuko sen biolentoen oldarra. Nahitazko dira interbentzio sozial paraleloak, legearen begiko ez direnak barne. 200.000 urteko justiziak egin ez duena ez duzu irauliko protesta «baketsuekin» bakarrik. Bigunki esanda, autodefentsa efektibo bat antolatu behar da. Argiago esanda, «legearen pisura» arriskatzeko prest dauden estrategiak behar dira. «Zigor gaitzazue, ahal baduzue, baina egingo dugu». Ez al dira arrisku horiek gain-hartzen eta pairatzen beste egoera batzuetan, adibidez, diktaduretan?

## *Patroi zehatzagoak*

Artasunaz esanak animalien sexu bidezko ugalketa osoarentzat balio dezake. Gizadiak ez zuen izan zorterik bonoboen eboluzioa inkarnatzeko, zeintzuek, salbuespen miragarri gisan, sexuaren ugaltzetik konpontzen baitituzte biolentzia ezberdinak. Hori diote. Eta badirudi egia dela, baina familia beraren barruan. Familiatik familiara, bonoboen artean ere eraso-defentsen mekanismoek beste tximino guztien berdin jokatzen dute. Nolanahi dela, gizakiak ez zuen heredatu bonoboen onberatasun intrafamiliar hori, ez emeak, artean espezie gehienen borondate sexuala gidatzen zuenak, atzera egin zuelako, baizik ar bat (gizona) hasi zelako tiraniak eta debeku-kodeak ezartzen, bortxaz, denentzat eta denean. Artean defendagai zen lurralde mugatua bera ere harrapagai bihurtu zen. Guztia oso astiro. Ez hainbeste ondo pentsaturik bezala, baizik adimena garatu ahala. Emeak, emakumeak, erabaki-ahalmenik izaten jarraitu nahi bazuen, aukera bakarra biolentoen boterean babestea zeukan.

Naturaren errean ere, gerra batek atzeman bazaitu, baduzu, behintzat, fatalitate dohakabeari jarkitzen ari zarelako edertasun tragiko bat. Konkistetan edo abentura harraparietan, ordea, bakarrik geratzen zaizu imajinatzea film horien amaiera duin bakarra izan dadila protagonista gizonezko guztien akabantza, produktoreak eta zuzendariak barne.

Behin gizon eta emakumeen (edo gizakien) izatezko eta eskubidezko berdintasuna osoki onartua izan ondoren; behin orientazio sexual ezberdinen garapen librea eta berdinkoia aitortua izan ondoren; behin genero-biolentzia, gehienez beste biolentzia batzuekin loturik doana, biolentziarik larrienetako bat dela nabarmendua izan ondoren, gainerakoa justizi kontua dela uste dut. Justiziaren aldeko eta biolentzien aurkako borroka-erak, zaharrek eta asma litezkeen berriek, norabidean berdintsuak eta elkarren osagarri izan behar dute. Era on bat, nahitaezkoa, feminismoa da, bere intentsitate maila guztietan.

Printzipio edo aldarri unibertsal horiek, munduko emakume guztientzat balio behar dutenak, argi utzi eta gero, abailtzen naiz sentiera femeninoari eta sentiera maskulinoari buruzko gogoeta orokorretan. Are gehiago, sentazioen eta emozioen gainean eraikitako diskurtsoan. Sen basikoak oso gutxi direla uste dut; sentazioak ez askoz gehiago, eta emozioak ere, hortxe nonbait. Guztien konbinazioak eta konbinazioen emaitzak amaigabeak izan daitezke, psikologian zabalki aztertuak izan ohi direnez, baina nik ez dut bizi nahi, hainbeste, inpresionismo psikologikoan, nola kontzientziaren argitasunean.

Baldin artean ez bagabiltza. Orduan sentazioen eta emozioen ñabardura, bihurtura eta talka posible guztiak, maite ez ezik, bilatzen ditut. Eta nonbait, literaturan nahiz beste edozein artetan, trebeki adierazita aurkitzen ditudanean, biziki hunkitzen eta gozarazten naute. Horrek ez du ukatzen, ordea, pentsamenduan nabiltzean, emozioak baino patroi zehatzagoetan finkatzea. Horretan ahalegintzen naiz, eta uste dut ahalegin hedagarria dela.

## *Sentiera maskulinoa?*

Zail da sentiera maskulino orokor batek irudika dezan sentiera maskulino partikular gehienekiko arrotz sentitzen den bat. Hortik ateratzen dut sentiera femeninoa ere orokortasun nebuloso bat dela. Beharbada, zehatzagoak dira, erasoago direlako, beste sentiera batzuk, ez femeninoak, ez maskulinoak ez direnak. Artasunak eta emetasunak badute, noski, bakoitzak bere ezaugarri komun unibertsal bat. «Gizonak denak dira berdinak» edo «emakumeak denak dira berdinak» baieztapen unibertsal horietan, uste dut badagoela egia bat. Baina hain da egia orokorra ezen ez baitu inolako partikulartasun zehatzik ematen, eta bai konkrezio okerretarako bidea.

Erosean esaten diren gauzak ez dira inteligenteak. Zein dira irabazleago konparazioan? «Bularrak bezalako dunak» ala «dunak bezalako bularrak?». Badira ideiak elkarrentzat hain ondo pentsatuak ezen, komun-ontzi bati begiratzean, ezin baitut ebitatu ipurdi bat ikustea. Mahai bakarti baten gainean whisky-botila bat seinalatu didazunean, nik esku bat ikusi dut haren lepoan, zeinak estrangulatua izan behar duela pentsatuko bainuke, mozkor bat ari ez balitz bakez-bakez dezifratu nahian botilaren sabeleko letrak. Sobrio aldian buruz dakizkienak, bestalde. Harrigarrien egiten zaidana da nola komun-ontzi berari hain ondo egokitzen zaizkion hain ipurdi ezberdinak. Eta nola whisky-botilari berari ere ... Utziozu! Mozkorrak, guztiak iruditzen zaizkit berdinak.

Amodioan harreman asegarririk lortuko ez bazenu, beti dago idealizazioa. Honek ez du inoiz huts egiten. Zein erraza den distantzian maitemintzea! Eta bai dela ona, distantziari eusten asmatuz gero! Eta ahal badut, zergatik ez? Inork ez du jakingo. Neure pentsamendua da. Neu naiz. Nori min egiten diot neu izateagatik?

## *Bai, Pascal*

Mundu honetan formulatu den ideiarik gogoangarriena utzi zenigun. «Unibertsoa da esfera infinitu bat, zeinaren erdigunea toki guztietan den, eta zirkunferentzia inon ere ez». Alegia, ni unibertsoa naizela. Bai ergelkeria! Horrela, nornahik uler dezake bera ere badela. Eta baldin beste bat ere izan badaiteke, ez zait interesatzen unibertsoa izatea. Zirkunferentzia hori ez al da izango zure Jainkoa? Baita esan baitzenuen: «Nahiago dut ez den Jainko bat sinetsiz erratu, baden Jainko bat ez sinetsiz erratu baino. Zeren, gero ezer ez badago, inoiz ez dut jakingo, betiko ezerezean honda nadinean. Baina zerbait badago, norbait badago, neure uko-jarreraren kontua eman beharko dut».

Jainko humanoegia suposatu zenuen, Pascal. Eta humanoetan, inhumanoegia. Nik nahiago dut bizitza labur honi denborarik ez kendu buruhauste horiekin. Saiatzen bazara, agian arrazoiz, bizitza deitoratzen, galduko duzu zerbait estimagarriaren aukera bakarra. Neure hileta ikusteko bakarrik interesatuko litzaidake hilezkor izatea. Bestela, «zerbait badago», asko poztuko naiz, biongatik. «Norbait badago», neuk lagunduko zaitut haren aurrera, ziur bainago hain izaki adimentsu bat ez dela baliatuko tratu txarrez. Beharbada, lehen topaketan, sor liteke mesfidantza zerbait, kontu-hartzeren bat barne, baina eternitate osoa daukagu, diferentziak leuntzeko.

Ulertzen dut, dudaren kasuan, arrazoizko dela posibilitate aldekoenari heltzea. Arazoa da, Pascal, zer egin, dudarik ez daukazunean. Orduan ezin duzu zeure arrazoimena era konbintzentean bihurtitu, baldin duda «metodikoa» ez bada. Tresna batek, arrazoimenak oraingoan, damaizun ondorio argi bat ezin duzu tresna berarekin alderantzitu. Esaten dituzun gauzengatik, ematen dit zeu ere dudatik hurrago zaudela bestetik baino.

«Batek dakien azkena da nondik hasi», esan zenuen. Ba, uste dut ez naizela saiatuko egiaztatzen. Zuk eta nik ulertzeko moduan esanda, beldur naiz arrazoimena gal dezadan, hasiera ezin aurkituz. Amaiera nola izango den badakit, eta nahikoa da hori, arreta eskusiboa bitarteko denbora honi emateko.

## *ESFERAREN ERDIGUNE BAT*



## 25 ispilu zati

Gutxitan bururatu zait neure burua probatzea, gehiegi ezagutzen baitut. Behin, hala ere, proba bat egitea pentsatu nuen, eta emaitzak pixka bat durduzatu ninduen. Bihoaz, lehenik, esaldi batzuk, eta ondoren azalduko dut zertan zetzan proba.

– Poza. Sentipenik desiragarriena. Animaliak abantaila handian daude. Behar duten oinarrizkoa edukiz gero, pozik ikusten dituzu. Eta beti dakite zer nahi duten. Gozamen handia da norbera bezain bizidun oso bat pozik ikustea. Katutxo bi inguruan, alboak zaintzen edo aurretik bidea markatzen. Tripatxoa beteez gero, horra pozaren forma bizia. Guk zer behar dugu pozik egoteko? Eman bira munduari, eta poz osoan bizi den gizaki bat aurkitu gabe itzul zaitezke. Orduan zer eman digu adimenak?

- Adinak ez du banitatea txikitzen, baizik umiliatzen.
- Negar ere umorez egin daiteke.
- Nire kontzientzia ezabatzean, dena izango da inexistentea.
- Ez miretsi inor, imitagarri ez denik.
- Bizitzaren zentzua bizitzea da.
- Trenean bere aurrean eseri nintzenean, pentsatu zuen: «Hori azalaren zuria! Barruan oso arima beltza izan behar du».
- Sanoki jan, osasuntsu hiltzeko.
- Oroimenean ez dira gauzak iraungitzen. Oroimena da putzu basatsu bat bezalakoa, non txerrikumeak gustura iraulkatzen diren.
- Heriotzaren inguruan oinazez biraka, hain erraza izanik toreroa akabatzea.
- Gizakien zentzua osatzen denerako, zati handi bat joana da.
- Janari batzuetan haurtzaro guztia jaten dut.
- Amodioak mirari adina triskantza egiten du, gutxienez.
- Elefanteak heriotza hunkituki usnatzen du, baina ez dizu hilarririk utziko.
- «Hemen urliarekin joaten nintzen». Orain ez dago. Hurrengo peajea: «Kaixo! Gaur ere hemendik?». Orain ez dago. Horrela bide guztian, eta bat-batean: «Baina ni hemen noa!»
- Norbere burua ezagutzea erraza da. Ulertzea da zaila.
- Sinesteari uzten diozu, eta ipuina gelditzen da.
- «Trafikoa beldurgarri jarri da». «Ez dituzu denak joko». «Bat jotzea ez al da nahikoa?». «Ez, beste guztiei joaten utzi nahi ez badiezu».
- Heriotzaren akats nagusia da ez duzula bera ezagutuko.
- Eguzkia badator, eta egun osorako dator.
- Ez, Herio! Ez naiz zuri mintzo! Bizitza agurtzen ari naiz.
- Pentsalariek eta poetek ez dakit zer aurkitzen dioten. Niri ez zait interesatzen infinitua.
- Haritz, pago, hagin, urki. Beti geldi, beti pozik. Emadazue egote jakintsu hori. Seguruenik, zorientsu hori.
- Itxaropen oro galdu nuen, baina beranduegi zen suizidatzeko.
- Bai, Pascal! Pentsatzeko gai dena bakarrik hiltzen da.

«Idatzi ote nezake zerbait, neure ispilu izan gabe?». Horixe probatu nahi nuen. Nola egin, ordea, proba objektibo bat norbere subjektuaz? Ze, probatzen hasten banintzen, orrialde bat idatziz, banekien zein zen asmoa. Ez nuen ikusten modurik proba burutzeko, neure asmoen ezjakinean. Ba, aurkitu nuen modua.

Suposatzen dut idazle guztiek izango dutela ohitura edo zerbait, gogoratzen zaizkien ideia ustez interesgarriak apuntatzen joateko. Nik, behintzat, izan dut ohitura hori. Halako zerrenda luze bat osatzen zenean, bahetu bat ematen nion. Sarritan, bahetzea berez gertatzen zen, esaldiak nonbait erabiliak izan zirelako. Edo beste gabe, ezabatuak izan zirelako, ganorabako gauzak ere ez baitira gutxi idazten. Ari naizen proba bururatu zitzaidanean, denbora batera ohartu nintzen: «Eduki behar diat hor nonbait zerrenda bat, aspalditik gordetako esaldiekin». Hantxe zeuden, bai. Esaldi haiek ezer probatzeko «asmotik» guztiz aparte idatziak izan ziren, elkarrekin inolako lotura bilaturik gabe. Esaldi batzuk alboratu nituen, 25eko zenbaki esanguratsuan uztearren, eta arestiko zerrenda horixe gelditu zen. Eta galdetu nuen: «Inolako proba-asmotik at idatziak izan ziren esaldi solte horien multzoa nire buruaren ispilu izan al daiteke?».

Bizpahirutan irakurrita, erantzuna baiezkoa izan zen. Apur bat asaldatu nintzen, baina halaxe zela ulertu nuen. 25 esaldiren tokian, 15 izan balira, edo 10, uste dut emaitza berdintsua irtengo zela. Neure burua besteengan jarritz, esango nuke, norbaitek orrialde bat bere burutik idatzi badu, nahiko osoki islatuko dela haren burua. «Bere burutik idazten badu» diot, ez pertsonaia baten ahotik edo engainu baten markoan. Eta beti ere, bere buruaren islatzea izanik pentsamenduen eta sentimenduen adierazpen mailan, ez izaeraren exhibizioan. Pentsaeran eta sentieran maitagarria izan zaitezke, eta izaeran, gorrotagarria.

## Anbotopeko pagoa

Lehen aldiz joan nintzenean, han zegoen. Hogeigarren urtera joan nintzenean, han zegoen. Berrogeita laugarren urtera joan naizenean, han dago. Ez diot diferentziarik nabaritu. Susmoa dut, betiko joan nadinean, hantxe egongo dela, berdin.

- Guk egoten dakigu – esan zidan –. Zuek ez dakizue egoten. Eta gutxiago, pozik egoten.

Berrogeita laugarren urtera joan naizela esan dut. Hemen dago. Pago handi bat da. Txakurzulotik Anboto barrenera doan pistaren azken bihurgunean, erreka-zuloaren gain-gainean. Pentsa liteke troka guztia zaintzeko landatu zutela, edo erne zela, baina ez. Bere espazioa bakarrik dominatzen du, oihan trinkoz inguraturik baitago. Espazio handia, hala ere, zuhaitz bat izateko. Duela hirurehun urteko mozketaren ondorioz, bederatzi adar-enbor ezberdin kontatu dizkiot, oso lodiak, oso gorak, traba gabeko argiaren bila. Duela berrogeita lau urtetik, adar bat falta duela esango nuke, baina ez diot galdetuko, erantzungo baitu horrek ez daukala garrantzirik. Bere adar gorolditsuetako bat besarkatu dudanean, esan dit:

- Ondo, ezta?
- Ederto! - erantzun dut.

Ez dit esan: «Aspaldiko! Zenbat denbora!». Ezta ere: «O! Bazoaz? Noiz etorriko zara?». Edo: «Argaldu zara. Loditu zara. Zahartu zara. Gazte zaude». Edo: «Zer berri munduan?». Ondoan nago, eta ez da molestatzen. Gainean nago, eta ez da kexatzen. Igurzten dut, eta onartzen du. Gustatzen zaiola esango nuke, baina ez dio ekiten haurrek bezala: «Berriro! Berriro». Metro bat altuko mozgune zabalera igo naiz, eta ez dio ardura zaldi baten gainean senti nadin. Inoiz sugearena ere egin izan diot, edo bere adar sendo eta ondo banatuak sugetzat hartu. Berdin dio. Adar batetik igotzekoa egin dudanean, esan dit: «Zeuk ikusiko». Inoiz erortzear ikusi nau eta esan dit: «Ni geldi nago. Zeuk ikusiko». Poza ematen du honelako izaki tolerantzaren baten gainean egotea.

Duela berrogeita lau urte, bere gaineko bordatxo imajinario honetantxe sortu zen nire liburu baten ideia. Bisita batzuk egin nizkion, ideia osorik samar ikusi arte. Orain ez dit hartaz ezer galdetu, bai baitaki azken liburua ere *-Uharte bat Venusen-* bordatxo imajinario honetantxe sortu zela. Bitartean badira beste liburu batzuk ere, baina nik uste dut adar hura galdu zuenetik -galdu zuela uste dudana adar hura falta denetik-, liburu konturik ez zaiola interesatzen. Uste dut ezaxola hori gertatu zitzaiola, *Neska bat leku inposiblean* izeneko nobela «errealismo magiko» bezala kalifikatu zutenean.

- Zuhaitzen gainean ibiltzen zarela kontatu al zenuen? -galdetu dit pagoak.
- Bai zera! –erantzun diot–. Kartzela batean ia hogeit metroko tunel bat nola abiatu zen eta nola amaitu zen errealismo osoz kontatzen da. Bada fikziozko pertsonaia bat, baina honek ere, berezitasun propio batzuk salbu, jardun gehiena tunelgintzan ematen du.
- Eta hori «magikoa» al da?
- Ez dakit. Nik, beste guztiek bezala, urte eta erdi egin nuen tunela zulatzen.

- Hara! – karrak egin zuen pagoak. Gehiago ez du liburu konturik aipatu.

Neure burua hala ikusiko nuke errealismo magikoan, nola Gabriel Aresti bat eskola platonikoan. Aritu batek jakin behar luke epaitzen ari den liburu baten generoa identifikatzen. Lehenago ere gertatu zen halako zerbait *Oromenderrieta* izeneko liburuaz. «Liburua» diot, ez baita nobela bat. Pentsatu beharko nuke nola definitu, baina nobela bat, ziur ezetz.

Zorionez, *Uharte bat Venusen* izeneko nobelaz ez da inolako kritikarik izan, edo neuk, behintzat, ez dut ikusi. Ondoren idatzi nuen *Etxepare, jalgi hadi batura* izenekoaz ere ez. Gauza ederra da mundu guztiarekin bakean egotea. Bai nahi nuke *Uharte bat Venusen* nobelaz zerbait esan.

Ozeanoetako iker ontzi batek -Ozeniker- zibilizazio berri eta oso ezberdin bat aurkitzen du, artean bazenik ere ez zekiten uharte batean. Ontzi horretako tripulante batek uharte hartan gelditzea erabaki du. Nobelan ez da deskribatzen gizarte hartako bizierarik, ez pentsaerarik, ez antolamendurik, ez inolako sistemarik, protagonistak bere ibileran edo harremanetan aurkitzen dituen kontrastez besterik. Kontraste txokanteak, berak daraman pentsaeratik. Pasatzen da amodiotik, lanetik, eskolatik, hezkuntzatik, osasungintzatik, jantokietatik, aisiatik, ikerkuntzatik eta abar eta abarretik, eta bere buruaz beste egin aurreko gutun baten azken esaldia hauxe da: «Eskerrik asko frogatu didazuelako gizadi inteligente bat badela, oraindik».

Kritika idatzirik ikusi ez badut ere, hitzez esan izan didate zerbait.

1) Zibilizazio hartan, pertsona guztien eta ibilera guztien kontrol osoa dagoela. Nolabait esateko, totalitarismo soziala.

Defendatzen naiz esanez zibilizazio hartan ez dela ageri inolako dominazio zantzurik. Beraz, dominaziorik ez den lekuan ezin da izan «kontrolrik», informazioa baizik. Litekeena al da hori? Uharte hartan bai. Horrexegatik da «gizadi inteligente bat».

«Defendatzen naiz esanez» jarri dut. Irakurleak baliteke kontrako inpresioa jasotzea. Baina autorearen asmoak zerbait balio badu, esan behar dut kontraste hori -informazioa bai, dominaziorik ez- beren beregi bilatua izan dela, «gizadi inteligente baten» ezaugarritzat. Asmoa nola adierazita dagoen beste kontu bat da. Izan daiteke autorearen gabezia, izan daiteke irakurlearena.

2) Baita aipatu didate uharte hartako gizarteak itoa, izoztua ematen duela, banakoa kolektiboak irentsita.

Defendatzen naiz esanez gizarte hura Aldous Huxleyren *Bai mundu berria* (Brave new world) nobelaren alderantzia dela. Norbanako bakoitzak nahi duen lana, nahi duenean egin ahal badu; nahi duena, nahi duenean, nahi duenarekin mugitu ahal bada; edo egon ahal badu; edo egin ahal badu, zer beste izan daiteke «askatasuna» deritzona? Elkarren berri zehatza jakin ahal izateak zer kentzen dio askatasunari, inork ez badu inor dominatzeko asmorik? Horixe da, hain zuzen, gure mundua inkarnatzen duten protagonistak harritzen dituen kontraste ulergaitza. Hortik ateratzen du protagonista nagusiak ondorioa «gizadi inteligente batena». Berriz ere autorearen eta

irakurlea kontrajar daitezke, baina autorearen asmoan, nobelak berariaz saihesten du zibilizazio hura esplikatzeko, ezpada protagonista «arrotzengan» islatzen diren harridurek ematen dutena.

## *Euskara aurreratu bat*

Zibilizazio «inteligente» haren ezaugarrietako bat hizkuntza eta hizkera dira. Euskara aurreratuago bat. Mikel Mendizabalen liburu baterako idatzi nuen kolaborazioa errepikatuko dut, honela zioena:

Larramendik El Imposible Vencido idatzi zuen. «Ezina egina». Euskara “imposible” baina “menperatu” horren barruan, ordea, bada elementu bat, defini daitekeena: «Ezina menperaezina». Aditza. Ez gara hasiko arrazoiak kateatzen. Euskal hiztunen praktika behatzea besterik ez dago, oztopo nagusia aditza dela jakiteko. Hizkeraz ari naiz. Idatzi, zernahi idatz daiteke, baina hizkuntza hitz egitea da, batez ere. Alde horretatik, gure aditza sinplifikatu ezik, euskarak etorkizun zaila dauka. Bi adibide:

*Nik zeuri emango dizkizut kopiak, eta gero zeuk banatuko dizkiezu gainerakoei. Noiz ikusiko zaituztegu berri?*

Gure aditz laguntzaileak «errepikatu» egiten ditu testuan esanda datozen elementu guztiak: nork, nori, nor-zer eta plurala. Eta hori sistematikoki, aditz forma guztietan. Jar ditzagun esaldiak honela:

*Nik zeuri emango kopiak, eta gero zeuk banatuko gainerakoei. Noiz guk zeuk ikusiko berri?*

Bigarren testuan dena dago esanda eta argi esanda. Denbora aditz nagusiak markatzen du: *Eman, ematen, emango, emanik, ematean, emandakoan ...* Korapilo guztiak dakartzan aditz laguntzailea ezabatzeak esatekoa argitzen, laburtzen eta errazten du. Hona testu idatzi bat, gorago aipatu *Uharte bat Venusen* nobelakoa. Izan kontuan testuan ageri den «iz» hori «izan» aditza dela, orainaldian.

*Difrakzioak ez gutxiago axola guri, ze marra uste gabeenak sortzeko gai iz, nahiz arau zehatzen arabera. Arau horiek osoki barnatzeak marren unibertsoa azaleratzen guri, ze marrak ez iz deus, baldin azpi-mugimendu baten adierazle ez iz. Orain, adi hona. Hemen ukan zeuk zenbait argazki, animalia eta gizaki. Lauki batekin gorputz bakoitzenaren ahalik parte gehien atzematen saiatu behar zeuk. Baldin lauki bakarrez ezin, bi edo hiru erabil. Ahalik lauki gutxienekin, irudiaren ahalik gehien hartzeko modua aurkitu behar zeuk. Horrela. Ondo! Orain irudiaren ertzak triangeluekin osatzea besterik ez gelditzen. Horrela. Hurbiltze bat lortzea aski iz. Zehaztasuna berez iritsiko.*

Honela edo «honestu» idazteak eta, batez ere, hitz egin ahal izateak, abantaila asko eta handiak lituzke. Eboluzioa ez da erraza izango, baina euskaraz ikastea erabakitzen dutenek bide horretatik jotzen badute, komunikazioan abantaila handia kenduko diete hiztun tradizionalei. Eta hizkuntzaren adierazmena, adierazteko ahalmena, asko handituko dute.

Badira xehetasunak, nobelan bertan ikusi beharrekoak, auzia luzeago eta konplexuago baita. Baina «aurreratze» nagusia esan daiteke aditzean dagoela. Lexikoan eta syntaxian ere igarriko da diferentzia, baina orain ez naiz hasiko *Euskara batuaren bigarren jaiotza* izeneko saiakeran jorratutako gai guztiak errepasatzen. Saiakera hartan ez zen planteatu aditzaren sinplifikazio «drastiko» hori. Aditzaren eta beste hainbat elementuren korapiloak hizkuntza praktikoko batean nola ebazten diren ikusi nahi duenak Venusko uhartera bisitatu beharko du.

Esan beharrik ez dago hizkuntzaren barruko birmoldatze hori gorabehera, euskararen izatea, lehenik eta batez ere, euskaldunen eta, oro har, baskoen borondatean datzala. Arazoaren subjektua, aktiboa zein pasiboa, garbi utzirik, hizkuntzaren birmoldatzeak edo, zehazki, sinplifikazioak asko eragin ahal dio borondate horri.

## *Indarra gehi biolentzia*

1) Gizadiaren historian ez da izan arorik, justizia osoki garatu denik. Gizadiaren historian ez da izango arorik, justizia osoki garatuko denik. Sistema maiz aipatu bat izendatzeko, gizadiaren historian ez da izan, ez izango arorik, sozialismoan osoki biziko denik. Abiapuntu horretatik pentsamendua eraikitzen hasten ez diren ideologia politiko, sozial, filosofiko guztiak kondenaturik daude ezer garrantzitsurik ez aportatzera, ezpada betiko korapilo askaezinei itzulika ibiltzea. Ezer esplikatu ez, eta ezer gutxiago konpondu. Hortik datoz pentsamendu-sistema «konplexuak», edo «nobedosoak», edo «berriak», edo «sakonak», edo «iraultzaileak» esan ohi zaienak, ebidentzia sinpleen difuminatzeak argitasuna ekarriko duelakoan. Egia handiak oso sinpleak dira. Ebidentzia esentzialak.

2) Hominidoa gizaki bihurtzen hasi zenean, ez zion utzi depredazioari edo depredatzaile izateari. Aitzitik, adimena garatu ahala, depredazio-ahalmena ere garatuz joan zen. Maila bat iritsi zen, non depredazioa pilaketa bilatzeko bezain adimentsu bilakatu baitzen. Arteko animalien depredazioa oinarritzko premiak asetzeraino bakarrik iristen zen. Espezie batzuek lortua zuten pilaketa txit mugatu baten garapena, negualdi bat edo. Adimenak ekarri zuen pilaketa mugagabearen grina eta asmoa, bere ahal propioaz eta harrapakinen kopuruaz beste mugarik ez zuena.

3) Depredazioaren tresna nagusia indarra da. Indarraren aliatu nagusia, teknologia. Badira, noski, ahalmen paralelo txikiago batzuk ere, hala nola engainu erak, mehatxuak eta abar. Baina zehar-tresnek balio ez dutenean, edo adimenean aurreratu ahala, hitza nahikoa ez denean, indarra agertuko da beti. Eta indarra nahikoa ez denean, hots, indar nolabait «arrazionala» nahikoa ez denean, indarra biolentzia bilakatuko da. Laburturik, depredazioaren azken tresna hutsezina indar biolentzia da. Ikasi eta irakatsi ohi den gizateriaren historia ofizial guztia biolentziaren historia da. Erabaki gutxiko beste apaingarri batzuen konkordantziak beti ere, hala nola arteak, filosofiak eta abar. Bitxiena da biolentzia gustatu egiten dela. Ken biolentzia, eta hil duzu zinea.

4) Indarrari eta biolentziari kontra-indar eta kontra-biolentziak jarritzeko lege natural orokorra da. Gizarterik zapalduenetan ere beti dago antagonismo bat, hausbera eran bada ere. Kontra-biolentzia biolentziaren izaera berdineko lehia bat izan daiteke. Hots, indar biolentzaren arteko norgehiago bat, gehienetan izan ohi den bezala. Baita izan daiteke biolentziaren antitesi askatzaile bat ere. Batean zein bestean, kontra-biolentzia hori laster bihurtuko da bera ere biolentzia. Oreka justurik eta egonkorrik ez da sekula gertatuko.

5) «Ez da sekula gertatuko», eraso-defentsen arteko lege ezinbesteko honi esker: *Erasoa beti eta nahitaez nagusituko zaio defentsari*. Ez gara ari partikularren arteko eraso-defentsez. Gizarte edo kolektibitate handiez ari gara, zeinak beti, beti, piramide eran osatzen baitira. Piramide global nagusiaren domeinupean, forma eta tamaina guztietako azpi-piramideak eratzen dira. Eratu izan dira beti. Ongizate indibidualen determinante nagusietako bat -beharbada, nagusiena- zorzea da. Hots, zein piramidetan eta piramidearen zein mailatan sortua den bakoitza. Baina erpinean ez duzu inoiz, inon ikusi izango elementu ahulik, txirorik, konformistarik. Ez duzu salbuespen kasualik ere ikusiko, zeren erasoaren defentsarekiko nagusitasun horixe

baita, hain zuzen, kolektibitate bati piramide forma harrarazten diona, ezinbestean. Une iheskorren batean eraikinak plataforma itxura hartu badu, denborak laster itzularaziko du piramide formara.

Eraso-defentsen arteko lege ezinbesteko hori azaldu eta argudiatu nuen *Oromenderrieta* izeneko liburuan. Oro mende eta herri biltzen diren mundu imajinarioa. Han azaltzen da legea, eta argudiatzen da ezinbeste gaindiezin hori puskatzeko era «natural bakarra».

«Defentsa definizioz mugagabea da, eraso posible guztietarako eraturik egon behar baitu. Baina hori ezinezkoa da, izaki infinitua izan ezik. Defentsa mugatua da, mugagabea izaterik ez daukalako. Eraso ere mugatua da, baina ez dauka mugagabea izan beharrik. Areago oraindik, zenbat eta mugatuago eta hartaratuago izan, hainbat hobe, defendatzailea ustekabean harrapatzeko. Erasotzaileak bere eraso motak aldatzen baldin badaki, defendatzaileak ez dauka denetarako defentsak prest edukitzerik. Zer egin? Erasotzen diotenean, orduantxe eratu defentsa, astirik ematen badiote. Erasoaren lehentasuna abantaila estrategiko funtsezkoa da, eta zenbaki handien garantia kontuan harturik, eraso nahitaez nagusituko zaio defentsari».

Eta abar. Gaztelaniazko itzulpen laburtu bat ere bada, *La explosión de la conciencia* izeneko. Ez naiz berriz hasiko arrazoien eta ondorioen garapena azaltzen. Nekatu naiz alferrik pentsatzen.

Argitu nahi dut liburu hura saiakera modura pentsatua izan zela. Tesi baten defentsa modura. «Pentsatua izan zen», baina ez nintzen ausartu. Izatez, badago tesi bat eta bere defentsa osoa, baina beste itxura baten azpian; hots, tesiaren gainean episodio ezberdin, baina berdintsuen kateamendu bat osatuz. Ez da nobela bat, baina batzuek «nobela txar bat» bezala deskalifikatu zuten. Ez zitzaien bururatu saiakera solapatu bat izan zitekeenik. Nahiko argi zegoen, ba! Arestian esana dudanez, aditu batek jakin behar luke kritikatzin ari den liburuaren generoa identifikatzen. Bakan batzuei arreta piztu zien. Gehienek ez zioten antzik eman. Batzuk ikaratu egin ziren. Neu lehenen, saiakera soil modura aurkezten ausartu ez nintzena. Orain, gutxi axola zait ezer. Heriotzaren hurbilak askatasun handia ematen du.



## *Ideologiak eta ekintzak*

Aurreko atalean idatzia izan denetik, gai hau azkar erabakiko dela uste dut.

1) Lehen abiapuntua da ideologia politiko edo sozialak, adibidez, sozialismoa edo komunismoa, inoiz ez direla inon gertatu, tamaina batetik gorako giza multzoetan. Arrazoa sinplea da: ezinezkoa da gerta daitezen, indarren eta biolentzien legeagatik. Inoiz gertatu ez badira, dedukzio garbiena da ezin direla gertatu. Hortik ateratzen da ideologia zintzo batek konstatazio edo ebidentzia hori argi uztetik abiatu behar duela, osatu beharreko edozein sistema teoriko azaltzeko. Ezina posibletzat aldarrikatzea funtsezko engainua da, eta engainua da elementurik kontra-iraultzaileena. Pentsalaria bera ohartu ez bada engainuaz, pentsatu behar da akats intelektual oinarritzko batetik abiatu dela. Akats horren gainean eraikitzen den sistema guztia erasanda gelditzen da. Gehienik ere, «intentzio onen» baratzean.

2) Mundu «justu» bat funtsezko engainutzat jo badugu, bai aldarrikatu ahal da, eta behar da, mundu «justuago» bat. Gizarte oso bat harturik, justizian mailaketa amaigabea dago barrenetik gailurreraino. Miseriatik goren mailaraino. Gizarte batzuetan, barrena ezin beheragotik hasten da, beste batzuetan goragotik. Abiapunturik onenean ere, gizarte justuena oso gizarte injustua da. Eta justizian sartzen ditugu zapalkuntza eta eskusio mota guztiak: sozialak, politikoak, generozkoak, kulturalak, arrazazkoak ... Guztiak.

Gizarte justuago horren alde, batzuetan, kausa edo mugimendu orokor masiboak gertatzen dira, arlo garrantzitsu batean iraultza bat bezala har daitezkeenak. Gurea bezalako gizarte aurreratu eta egonkor samarretan, zailago da kausa orokor masibo bat abiatzea. Baina tentsioak, diferentziak, eskusioak, hitz batez, injustiziak, hortxe daude. Eta borrokarako kausak, zein bere arloan oso handiak, fronte ugarian banatzen dira: eskubide laboralak, giza eskubideak, nazionalak, kulturalak, generozkoak, ekologikoak, eta abar eta abar. Eta tokian-tokian sortzen diren gatazka partikular amaigabeak. Gizarte justuago baten alde lan egin nahi dutenen esparruak eta mugimenduak zenbat eta nolakoak diren ez dago kontatzerik ere.

Horietan guztietan, militanteak behar dira. Kemen eta konpromiso maila guztietan, baina militanteak. Uste dut militantearen kontzeptua nahiko argi dagoela guztien edo gehienen buruan. «Iraultzaile» kontzeptua ez dago hain argi. Nire buruan ez, behintzat. Noiz da bat «militantea» eta noiz «iraultzailea»? Gizadi depredatzaile batean barruan, gizarte erabat justurik, ez bakarrik ez da izango, baizik ezin da izan. Pentsamendu iraultzaile bat ebidentzia horretatik abiatzen ez bada, ezin du sistema sinesgarri bat eraiki. Ebidentzia horretatik abiatu bada, segi dezakegu hizketan. Eta garrantzitsuena, segi dezakegu borrokan.

## AURKIBIDEA

LEHOIAREN KANTUA .....	3
Lehoi bila .....	4
Gure amaren poza .....	5
Gauzei egoten utzi .....	6
Objektuen zoriona .....	7
Urte berri, esfera berri .....	8
Hidrogenoa .....	9
Haizeak dakiena .....	10
Eternitatearen erdia .....	11
Oroimena zerbait bada .....	12
Bi etorkizun .....	13
Zenbat zero .....	14
Bakardade gozoa .....	15
Hutsunea .....	16
Dezepzio naturala .....	17
Armak .....	18
Denboraren arazoa .....	19
Nire burezurra .....	20
Pentsatu, sentitu .....	21
Dezepzioz dezepzio .....	22
Ergela naiz .....	23
Duintasunez hil .....	24
Ez, ez! .....	25
Izar horiek .....	26
Askatasunaren maila bat .....	27
Beharakada abismala .....	28
Hozka hil .....	29
Laboaren profila .....	30
Natura kontenplätzen .....	31
Nik poza nahi dut .....	32
Ez naiz nekatu bizitzen .....	33
Ilargi zoragarri .....	34
Beste mundutik .....	35
Ni, zu, gu .....	36
Berriz jaioko bagina .....	37
Ezin dut esan .....	38
Ez naiz lotsatzen .....	39
Soldadu zintzoa .....	40
Ospa dezagun! .....	41
Gizon kiskalia .....	42
Ez dut gehiago sufrituko .....	43
Heriotzaz .....	44
Nire itxaropena .....	45
Hilak non daude? .....	46
Neure buruaren bila .....	47
Bizitza ametsa bada .....	48
Egunean poesia bat .....	49

Eguneko 2. poesia .....	50
LEHOIAREN PENTSAMENDUA .....	51
Adinean aurrera .....	52
Jaun txit goren .....	53
Darwin maite .....	54
Bihotzaren arrazoiak .....	55
Nola esplikatzen da.....	56
Itxaropenetik harago .....	57
Optimistak eta pesimistak .....	58
Hurtzaroko lurrak .....	59
Bizierak, izaerak .....	60
Kanabera pentsalaria .....	61
Mugaz hemendik .....	62
Emozio inteligentea .....	63
Sentimendua .....	64
Inteligentziarentzat .....	65
Poetez burlatzea .....	66
Komuneko irakurlea .....	67
Zorigaitzak .....	68
Zu zara zu .....	69
Fikzioez .....	70
300 orrialde .....	71
Hitzak zertarako .....	72
Oroimen osoa .....	73
Ez dut pretenditzen .....	74
Erasmusena .....	75
Nire abaroa .....	76
Eskerrak zaborrari .....	77
Gurutzeko Kristo .....	78
Gillotina oheburuan .....	79
Kristo gorria .....	80
Libre naiz .....	81
Mirari bat naiz .....	82
Nire droga .....	83
Iribarrea .....	84
Denborarekiko .....	85
Kantatzen duen herria .....	86
Ohean gelditzea .....	87
Zoriona .....	88
Sanoak gaixo .....	89
Ilargi zoragarri .....	90
Tunela .....	91
Kartzelero maite .....	92
Gerraren onak .....	93
Bizitza bikoitza .....	94
Animaliak .....	95
Krimenak artean .....	96
Artista nahia .....	97

Hilezkortasuna .....	98
Mirarian bizi .....	99
Feminismoa .....	100
Patroi zehatzagoak .....	101
Sentiera maskulinoa? .....	102
Bai, Pascal .....	103
ESFERAREN ERDIGUNE BAT .....	104
25 ispilu zati .....	105
Anbotopeko pagoa .....	107
Euskara aurreratu bat .....	110
Indarra gehi biolentzia .....	111
Ideologiak eta ekintzak .....	113